



Arrasateko
immigrazioaren
gaur egungo
egoeraren
DIAGNOSIA

Atal kualitatiboa

2019



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración



AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Bizikidetza eta parte hartzea	7
Bizikidetza giro orokorra: lasaia.....	7
Parte hartzea eta kulturarteko harremanak: gutxi.....	10
3. Gizarteratze esparruak	19
Hezkuntza: gaurko tirabira, etorkizunerako normaltasunerako bidea.....	20
Etxebizitza: eskuratzeko ezintasuna eta getifikazioa	23
Enplegua eta gizarte-prestazioak: errealitate anitzak	27
Osasuna: gehienetan bermatua	30
4. Gizarteratze prozesuan eragina duten zeharkako aldagaiak. ..	33
Hizkuntza: euskararen auzia	33
Generoa: emakumeen zaugarritasun bikoitza.....	37
5. Migrazio-mahaia: berraktibatze beharra	41
6. Ondorioak	43
7. Eranskinak	47
Diagnostikoaren atal kualitatiborako burututako elkarrizketak ..	47
Diagnostikoaren atal kualitatiborako burututako eztabaida taldea	47



1

Sarrera

Ondorengo txosten honetan, Arrasateko immigrazioaren inguruko diagnostikoari dagokion atal kualitatiboa jasotzen da. Hau, atal kuantitatiboari lotuta ulertu behar da, helburua datu estatistikoaren bidez lortu ezin den informazioa eskuratzea edo horiek osatzea delarik. Horrela bada, bi txosten hauek —kualitatiboa zein kuantitatiboa— Arrasateko Bizikidetzaren Plana egiteko diagnostikoa osatzen dute eta Plan horretan aurkezten diren ekintza ezberdinak justifikatzeko oinarria dira.

Atal kualitatibo hau sakoneko elkarrizketen eta talde eztabaidaren bidez egin da. Hasiera batean 6 elkarrizketa burutu dira, udaleko Aniztasun Teknikaria eta elkarte desberdinetako ordezkariekin —SOS Arrazakeria, Gurutze Gorria, IMME (Euskadiko Emakume Migratzaileen Integrazioaren alde lan egiten duen elkarte), Ekin Emakumeak (emakumeen jabekuntzan euskaraz eragiteko asmoa duen elkarte) eta Caritas—. Elkarrizketa horietan bildutako puntu gakoak kontutan izanda, talde eztabaida bat eratu da, immigrazioarekin harreman zuzena eta errealitate horren inguruko ezagutza duten instituzio ordezkari, gizarte-eragile eta pertsonen —atzerritarrak eta bertakoak— iritzia eta ikuspuntua ezagutzeko helburuz, batik bat, Bizikidetzaren Planari begira planteatu daitezkeen ekintza proposamenak pentsatu, hausnartu zein adosteko asmoz.

Lortutako informazioa atal ezberdinetan sailkatu da: lehenik eta behin, bizikidetzaren giroari eta herritarren parte-hartzeari dagokion atal bat jorratu da, Arrasateko herrian immigrazioaren inguruan aurkitzen dugun errealitatearen argazki orokor bat jaso asmoz. Bigarren atal batean, gizarteratze esparru orokorrak landu dira, hala nola, hezkuntza, etxebizitza, enplegua edota osasunari dagozkionak. Hirugarrenik, transbertsalagoak diren eta esparru guztietan eragin dezaketen bi ardatz nagusi jorratu dira: hizkuntzari dagokiona —atzerritarren ama hizkuntzaren eragina edota gaztelera eta euskeraren arteko auzia— eta generoari dagokiona, berez atzerritarren egoera zaila bada emakumeen errealitatea are nekezagoa aurkezten

delako. Laugarrenik, txostenean zehar eta esparru desberdinetan agertutako landu beharreko gakoei erantzuna eman asmoz migrazio mahaia berraktibatzearen premia jasotzen duen atal bat landu da, elkarrizketatu eta partaiedeak, orobat, horrekin ados agertu bait dira. Amaitzeko, atal guztietan agertuz joan diren ideia nagusiak biltzen dituen ondorioak jaso dira azken atalean.



2

Bizikidetza eta parte hartzea

Bizikidetza giro orokorra: lasaia

Elkarrizketatutako pertsonak diotenez, gaur egun Arrasateko herrian immigrazioaren inguruan aurkitzen dugun errealitatea nahiko lasaia bezala deskribatu daiteke. Are gehiago, immigrazio fenomenoak aspaldidanik existitu duen herria da: XX. mendearen amaieran Espainiako beste herri batzuetatik industrian lan egitera etorri zirenen jasotzaile izan zen; azken boladan berriz, XXI. mende hasieratik, nazioartetik datozen pertsonak nabarmedu dira herrian.

Da herri bat non ahal den elkarrekin bizi. Nahiko errespetua dago horrekiko, esan nahi dut, danok pertsonak gara, baina noski eta dau aurreiritzi eta mesfidantza asko igual etorkinei begira... Baina nik uste dut denbora pasa ahala, ze azkenean immigrazio fenomeno hau badator... ez da gaur eguneko gauza bat, urte batzuk ja daramatza etortzen, geroz eta normalago hartzen dugu herritarrok hemen. Ba, hori, jatorri ezberdinetako pertsonak bizi garela batera (E-1).

Ona esango nuke, hau da, ez da iskanbila haundirik gertatu [...] eta orokorrean ezin da esan ez istilurik ez iskanbilarik izan denik eta [...] orokorrean mesfidantza batzuetatik kanpo eta ez dakit ba prejuizioak [...] baino bestela orokorrean bada giroa jasangarria, ez da optimoa izango baina jasangarria ba iskanbilarik gertatu ez direlako bereziki. [...] Orokorrean dago bakea eta poliki-poliki bagoiaz elkar ezagutzen eta hartu-emanak hartzen, baina bakoitza bere munduan gehio sartuta dago besteenean baino, baina orokorrean behintzat egoera txar batetik ez gabiltza (E-4).

Nik uste dot, ba ez dagoela konflikto gehiegi, nire ikuspuntutik, ez dakit e? [...] Elkarbizitza, bueno, nahiko ona dala. Dana hobetu leike, baina bueno, nik uste dot ez dala hain txarra. Eitxen dira gauza asko horren harira (E-2).

Jatorri desberdinak, kultura desberdinak edo erlijio desberdinak nahasteak ez du arazo berezirik ekarri. Bi eliza ebangeliko —bata baptista eta pentekostala bestea— eta mezkita bat ireki dira herrian, era harmoniatsuan: “zabaldu zan ospe haundiarekin, esan nahi det udaletxeko jendearekin eta gu ere gonbidatuta eta abar eta abar, han egon ginen danok eta ez da inungo arazorik izan, ez sorreran eta ez geroan ere ez” (E-4).

Dena den, elkarrizketatu batzuk giro lasai hori azpimarratzen duten bitartean, beste batzuk horren atzean ezkututzen den tentsioa azaleratzen dute. Horrek kezka eragiten die eta landu beharra nabarmentzen dute.

Pero me da miedo que esto explote si no se trabaja. Que haya algo que lleve a un extremo que no lo desea nadie. Porque está ahí cada uno como aguantando... Mucha tensión, sí. Y si no llegamos a un trabajo profundo creo que nos vamos a arrepentir. Todos, ¿eh? Tanto los que vienen como los que están aquí. [...] Todavía no hemos conseguido un punto común de trabajo que pueda llevarnos a estar caminando en el mismo carril. Respetándonos y entendiéndonos cada uno (E-6).

Nik uste dut benetan ez baldin bada, kasu honetan udaletxetik, benetako elkarbizitza bat bultzatzen, arazo ba bihurtuko dela, ze es que ez dago harremanik. Bizi gara haserre bezala, bananduta eta nik uste dut hor udaletxeak esku hartu beharko lukeela. Eta asko, gainera (E-3).

Adibide grafiko bat erabiltzen du elkarrizketatu batek —bera atzerritarra— Arrasateko gaurko errealitatea deskribatzeko. Koadro bat margotu beharko balu errealitate hori irudikatzen, Arrasateko herria etxe bat bailitzan marraztuko luke, eta etxe horretara gonbidatuak —atzerritarrak— datozenean errespetuzko jarrera erakutsi beharko luketela uste du. Horrek, aldi berean, etxeak aldetik maila bereko errespetua eta babesa jasotzea ekarri beharko luke. Aldiz, gaurko errealitatea koadro ideal horretatik urrun irudikatzen du: “Ni los que vienen respetan las casas ni los que están en casa entienden” (E-6).

Herritar eta eragile batzuen aldetik arazo gisa bizi den aspektu bat, kulturala baino gehiago soziala litzateke, oinarria kokagune ekonomikoan duen gizarte banaketa gero eta nabarmenagoa baita herrian. Egoera ekonomikoak posizio desberdinetan kokatzen ditu oro har atzerritik etorritako pertsonak eta arrasatetarrak —nahiz eta banaketa zurrunik ezin dugun egin etorkinak eta bertakoak elkarrengandik bereizten diren baina euren artean homogeenak diren multzo gisa izendatuz—; eta horrek, bizitzako eremu desberdinetan aukera berdinek ez izatea dakar, hots, etorkinak desabantaila egoeran kokatzea.

Arazo moduan, en plan arraza kontuak direla eta nik uste dut gaur egun ezetz. Bai sortzen dau beste arazo mota batzuk, hau da, banaketa soziala, adibidez. Nik hor bai ikusten dut... Eta dena igual ekonomian oinarrituta. [...] Kulturalki, esango nuke, nahiko onartuta daukagula, kulturalki. Baina sozialki esango nuke banaketa bat sortzen dela herrian. Igual hori, ekonomian oinarrituta, batez ere (E-1).

Desabantaila egoera horren adibide gisa udalekuak ordaindu ezin eta uda guztian etxean geratzen diren haurren egoera aipatzen du elkarrizketatu batek (E-3), hori batik bat familia atzerritarren baitan gertatzen den errealitate bat delarik. Burutu den eztabaida taldean eskolaz kanpoko kirol jardueretan aritzeko ezintasuna aipatzen da, horietan apuntatzea oso garestia baita egoera ekonomiko apalean aurkitzen den familia batentzat; edo klase partikularrak ordaintzeko ezintasuna ere azpimarratzen da, eskolako zereginekin laguntzeko batik bat atzerritarrentzat funtsezkoa dena, hizkuntza menperatzen ez dutenez eurak lagundu ezin diotelako. Horrek guztiak, haurrak elkarrekin harremantzeko espazio amankomunak izatea ere galarazten du.

Cualquier chaval no puede apuntarse en el fútbol porque es super caro. Entonces, los chavales que se apuntan en el fútbol son de padres que se lo pueden permitir pagar. Entonces ahí está el problema. En muchas ocasiones las familias que vienen de otros países, que acaban de llegar, tienen una economía más baja, por lo... No puedo generalizar esto, pero bueno, se dan casos que esos... Sus hijos pues igual no pueden pagar 300€ al año para participar en fútbol. Entonces, ¿dónde está la realidad de mezclarse? (ET).

A mí me parece que es gravísimo es que haya muchos padres en Arrasate que no puedan pagar unas clases particulares a sus hijos porque no pueden. [...] Nada, vamos, nada. Ni aisialdia, ni zaintza ni clases particulares cuando les urge... (ET).

Banaketa horren ondorioz herriko erdi eta goi mailako familiak alde batetik geratzen dira, eta herriko maila apalenetakoak eta etorri berri diren atzerritarrak bestetik —ziurrenik egongo da atzerritik etorritako familiarik goiko geruzan kokatzen denik, baina normalki errealitatea bestelakoa da—. Bigarren geruza horretan nabarmenagoak dira talkak, batik bat prestazio sozialak jasotzeari dagokionean: bertakoentzat, etorri berri direnak, konpetentzia bilakatzen dira.

Eta horiek: “Bueno aquí todo para los moros, aquí todo para...” nola jartzen diran, ez? Azkenean ikusten dute konpetentzia etorri zaiela eta sentido horretan errezena da hori, ez? (E-4).

Askok jasotzen dute RGI laguntza eta ere bai ezagutzen ditut familia asko [bertakokak] joan direla udaletxera laguntza eske eta rechazau egin zaie. Hemen egon zen boom arrazista... A ver, azkenean laguntza bat jasotzeko daukazuz baldintza batzuk. Ez badituzu betetzen... eta asko, boom arrazista edo... bai, asko egon zen Fagor itxi zutenean, bertako familia asko kanpoan gelditu ziren, kalean lan gabe, laguntza eske joan eta... ezetz. [...] orduan haserretu egiten dira eta nik uste dut herri honetako arrazismoa datorrela hortik. Ba pentsatu: “Jolin! Ni bizitza osoan lanean, kotizatzen, zergak ordaintzen eta oraintxe gelditu naiz kalean, adin txikiko umiekin, nere bikotia baita, udaletxera joan eta laguntzarik ez eduki? Eta gero dator kanpotik jendea eta heltzen diren momentuan, hiru urte enpadronatuta eta ja daukate eskubidea laguntzarako!” (E-3).

Autoktonoen aldetik nabarmentzen den beste ñabardura bat kutsu asimilazionista barnebiltzen duen presazko jarrera da: denbora gutxian pertsona migratzaileak “gu bezalakoak” izan daitezen espero eta galdegiten dute. Batzuetan aurreiritziak

agertzen dira, atzerritarrek bizi izandako prozesuen ezagutza eta ulermen faltaren ondorio izan daitekeena.

Ni konturatzen nazena da jendiai falta... pazientzia falta, hau da, kanpotik etortzen dan jendea guk gure dogu ia egotia gizartean, ulertzea gure gizartea eta ulertzea gure lan egiteko modua eta gure bizitzeko modua. O sea, falta da, prozesu baten ulermenaren falta dago herritarrengan. Nik uste hori, hori dala behar-beharrezkoa. [...] Somos muy impacientes, muy impacientes eta gainera ezezagutzatik asko hitz egiten dugu. O sea falta da informazioa, aurreiritziak apurto, e... benetan e... o sea kontziente izatea zer suposatzen dion pertsona bati bere herrialdea uztea, bere hizkuntza, eta etortzea o sea beste munduko beste puntara (E-5).

Parte hartzea eta kulturarteko harremanak: gutxi

Aurreko atalean orokorrean bizikidetzaren giroa lasaia dela argi geratu bada ere, askotan jatorri desberdinetako pertsonen arteko harremana edota ekimen desberdinetan erakusten duten parte hartzea nahiko apala dela jaso da elkarrizketatuen aldetik. Agian jadanik aipatu den elkar-ezagutza eta ulermen falta horrek eraginda gertatzen da, edo litekeena da ulermen faltaren erroan dagoen kausa izatea, baina edonola ere errealitate bat da jatorri desberdineko pertsonak normalki ez direla nahasten ikustea. Bakoitza bere aldetik dabilela azpimarratzen da, hau da, atzerritarrak —eta horien baitan jatorri bakoitzekoak— alde batetik dabilzala eta arrasatetarrak bestetik. Eta horren erantzukizuna bi aldeetan legoke, nahasketarako pausua bi aldeetatik etorri beharrezkoa baita.

Baina bai ikusten dut, lehen bezala, ez garela elkartzen, ez? Igual oso leku gutxietan elkartzen gara, baina... Igual daz etorkinak alde batetik, beste batzuk beste batetik. Esan nahi dut: ez gara asko elkartzen (E-1).

Immigrazioa, bueno niri pentsatzen zait bastante tristea, ze ez dut ikusten nahasketa bat. [...] Kanpotarrak, euren artean egin dute talde bat eta jo, ba gero herriko bizitzan ez dira integratzen. Ez dakit zein puntu arte den beraien erabakia edo euskaldunok ere ez dugula oso errez jartzen. Orduan ba hori, bai, ikusi dot asko egiten dituztela taldeak eta jo! Pentsatzen zait tristea lurralde batera etorri eta integratzeko zailtasunak aurkitzea (E-3).

En Arrasate estamos viviendo con muchos colores y muchos orígenes, pero cada uno está en su carril. Todavía la gente no se ha convencido de llegar a un punto común donde podamos diseñar un carril para todos (E-6).

Nolanahi ere, elkarrizketatu batzuek ez nahaste hori penaz eta gizarteratze prozesurako oztopo gisa bizi duten bitartean, beste zenbaitek zerbait naturala gisa ulertzen dute bakoitza bere herrialdetik etorritakoekin harremantzea, kultura, ohiturak edota hizkuntza partekatzen dituztelako eta horrek harremana erraztu egiten duelako.

O sea, egixa da ez dagoela nahasketa bat. Ez bada umiak eskolan, ez dago nahasketa bat Arrasatera inmigrau den jendian eta hemen jaiotakoak direnen artean, baina ez dago conflicto gehixegirik bez, nere ustez. [...] Ez dot uste perzibitzen danik arazo moduan. [...] Nik uste dot, neutral, hori da, gehixenak ba bueno, onartzen dabela errealitate bat moduan. Biztanleriaren zati txiki batek, igual aberastasun moduan eta zati txiki batek bebai, arazo baten moduan. Orokorrean, sin más (E-2).

Badira desberdintasunak jatorrien artean: batzuk itxiagoak dira eta gehiago mantentzen dira euren artean; beste batzuk, berriz, irekiagoak dira eta jende desberdinarekin nahasteko aldeko jarrera erakusten dute. Jatorri desberdinetako migratzaileak elkarren artean nahasteari dagokionean, pakistandarrena talde itxia dela aipatzen da oro har, Latinoamerikako herrialde desberdinetatik etorritakoek aldiz euren artean nahasteko joera gehiago erakusten dute, baita ipar-afrikarrek ere.

Pakistandarrena da talde oso-oso itxia, oso-oso [...] latinoamerikarrak [...] haien artian adibidez aisialdia jorrazteko eta hori zabalagoak dia, askotan ikusten duzu Boliviako andra bat ba... ba Nikaragua batekin, ba Mexikoko batekin... hortan errezago, bueno hizkuntza berdina ere bada [...] Sahara eta Marruekos, pentsatzen duzu ze iskanbila den han beraien artean... hemen gai dira askotan elkarrekin ibiltzeko, bereziki emakumeak (E-4).

Dena den, arrasatearrekin nahasterako orduan errealitatea desberdina da, eta kasu honetan itxienak latinoamerikarrak agertzen direla azpimarratzen da; ipar-afrikarrak, pakistandarrak edo nepaldarrak askoz ere presenteago egon ohi dira Arrasateko herrian antolatzen diren ekimenetan.

Eta gero klan haundiak direla. Latinoamerikarrak funtzionatzen dutela asko e... o sea... dira oso itxiak, oso itxiak. Ze adibidez guk askotan komentatu izaten dugu, ekintzak antolatzen ditugunen eta e... eta atzerritarrekin lotuta dauken ekintzak eta apur bat bisualizateko eta sentsibilizateko eta... asko kostatzen zaigu latinoamerikarregana heltzea ekintzetan. [...] Antolatzen da kultur aniztasun, kultur aniztasun jaia eta pakistandarrak, saharauiarrak, marokoarrak, nepaldarrak... berehala parte hartzen zuten eta apuntatzen ziren, guk jarriko dugu hau, guk eingo dugu bestea... osea latinoamerikarregara joan behar izan ginen (E-5).

Gaztelera jakinik ere, eta beraz Arrasateko herritarrekin komunikatzeko aukera gehiago izanik, bertako eta latinoamerikarren artean distantzia bat nabarmentzen da. Alabaina, aurrerago ikusiko den moduan, honetan badu zerikusirik jatorri honetako pertsonen –gehien bat emakumeek– dituzten lan ordutegi trinkoek. Aisialdian parte hartzea garatzeko oztupo bilakatzen zaien alderdi hori bera, autoktonoekin eta era pribatu batean harremanak garatzeko aukera gisa aurkezten zaie ordea aldi berean.

Latinoak [...] Ba zaintza lanak eta, nik ikusi dut zaintza lanetan dabiltzan bitartean, pertsonen daudenez, bertako pertsonak ezagutzen joaten direla. Eta orduan ba bueno, poliki-poliki doaz jendea ezagutzen eta... Ba eta musulmanekin, ba ez dut ikusi... ez (E-3).

Adina edo generoa bezalako aldagaiek ere badute zerikusirik honetan. Gazteen artean jatorri batzuk —latinoamerikarrak edo hegoafrikarrak, esaterako— bertakoekin

nahasita ikustea ohikoagoa da beste batzuk baino —hots, iparafrikarrak edo Europa ekialdekoak—, hizkuntza edota ohitura kulturalak tarteko.

Joe, irtetzen zara zapatu baten juergan eta ikusten duzu kuadrilla, gazte kuadrilla bat eta igual daude hiru latino kuadrillan eta beltzaranak ere bai ikusten dira azken aldian kuadrillan sartuta, baina musulmanak ez. Ere bai ulertzen dut, ze irtetzen dira, ez dute edaten, ez dute erretzen, batzuk ba... oso, adibidez, Errusiakoa dauzkagu ebangelistak ez dutenak ezer ospatzen, ez direnak juergan irteten, orduan... (E-3).

Generoari dagokionez, emakumeen aldetik parte hartzea txikiagoa izan ohi dela azpimarratu da, horren atzean arrazoi kulturalak egon daitezkeelarik. Harrera gizartearen aldetik oztopo bilakatzen dira emakume musulmandarren erlijioa eta janzkera edota ohitura kulturalak, hizkuntza desberdinak hitz egiteak ere ez du laguntzen elkarrekin komunikatzerako orduan, eta guzti horrek zaildu egiten du emakumeen parte hartzea. Emakume atzerritar batek penaz bizi du bere aberkideek Arrasateko herrian konpromisoa erakusteko behar hori ez ulertzea.

Tu presencia requiere un mínimo de compromiso para que tú puedas primero entender y valorar todo lo que se te ofrece. Y me duele muchísimo cuando hay mujeres de mi cultura o de otras culturas que no logran entender esto (E-6).

Dena den, ez da emakume atzerritar —edo musulmandar— guztietara orokortu ahal den errealitate bat. Elkarrizketatu berberak ondo azaltzen duen moduan, bera emakumea eta musulmandarra izanik ere beti inplikaturatik agertu da herriko ekimenetan. Hori bai, atzerritik etorritako pertsona bati eskatzen zaion esfortzua bertakoena baino askoz handiagoa da: “Pero te tienes que quemar. No estoy hablando de luchar, estoy hablando de quemar. Ya has quemado tus energías para llegar a donde has llegado” (E-6).

Esparru kulturaletik politikora igarotzen bagara, ordea, desberdintasunak nabarmentzen dira parte-hartze horretan. Latinoamerikarrak beste jatorri batzuk baino kontzientzia politiko nabarmenagoarekin datozela jaso da elkarrizketatuen aldetik, eta hainbatetan hemengo alderdietan parte hartu dutela. Magrebtarrek adibidez, ez dute halako joerarik erakutsi.

Hemen ere herriko PSOE elkartean sei-zazpi amerikarrak egongo dira momentu hontan afiliatu direnak, e? [...] Bereziki amerikarretan jende dezente badatorrela kontzientzia politikarekin, hau da, politikan sartu behar dala eta parte hartu behar dala eta... [...] eta aldiz hori magrebietan eta ez dut inoiz entzun... norbaitek igual beraien alderdi politikoa sortuko balitz ez dakit parte ere hartuko zutenik baina hauek prest daude, amerikarrak, gure alderdietan, gustuko daukaten alderdietan sartzeko (E-4).

Edonola ere, orokorrean atzerritarrek edozein esparrutan bertakoek baino gutxiago parte hartzen dutela esan daiteke.

Adibidez, oraindik ere, umeei zail egiten zaie... ikusten, ba aurrekoan, Pirritx eta Porrotx eta horiek eta harea jutea edota herriko festetan parte hartzea, beren adineko edo mailako neska-mutlekin konparatuta nik uste dut gutxiago parte hartzen dutela. Baina gurasoak ere askotan ere ez dakite jaiak direnik ere orduan... [...] sentido horretan eta ordun familiakoek ere ez dute bultzatzen, umeak kaleratze maila hortan. Edo hemen egiten da San Nikolas egunean bolo-bolo udaletxeko balkoitik alkatea eta kontzejalak eta benga toneladaka goxokiak bota... hasi dira baina normalean ez dira azaltzen. Tanborradan igual gehio, tanborradan eskolatik antolatuta dagoenez, ia haietako jende gehiago ikusten da hemengoekin nahastuta baina hor ere ez tokatuko zitzaizen kopuruan edo esango nuke (E-4).

Badirudi hainbatetan gogo falta baino informazio gabezia dela gutxiago parte hartze horren eragilea, eta zenbait kasutan ez da informazio hori helarazten ez zaielako, baizik eta horrek eskatzen duen jarrera aktibo hori garatzen ez dutelako: “informazio pilo bat bidaltzen da etxeetara baina irakurri egin behar da” (E-4). Elkarrizketatuen gehiengoa ados agertzen da beste informazio bide batzuk bilatzea beharrezkoa dela azpimarratzerakoan, zuzenagoko bideak, benetan eraginkorra suertatu dadin mezua, jaso dezaten eta pertsona atzerritarrak parte hartzera animatu daitezten.

Informazioa pertsonaren bitartez ailegarazi egiten duzunean, normalean ondo-ondo moldatu dira zenbait gauzetara. [...] Gurean ohitura daukagu buzoian zeozer bada bueno lehenego begiratu eta [...] beti irakurri egiten dezu eta esandakoa, normalean, oso burugogorra ez baldin bazera, ba... betetzera jotzen dezu, ez? Hauek ez, [...] ez dute ezagutzen informazioa bidaltzen zaienian ba beraien jarrera aktiboa eskatzen duela, orduan ez dezu lortuko mezua ailegaraztea eta bueno sentido horretan beste bideak saiatu direnean, garestiago igual izango dira baina nik uste dut emaitza onak eman dituztela. [...] Jun, berba egin beraien hizkuntzetan eta taka, jarrera aldaketa berehalakoa (E-4).

Aurrez-aurrekoa nitako askoz ere inportanteagoa da e? [...] Porque claro guk egiten ditugu kriston panfletoak kriston esku orriak, kriston gidak... baina benetan ulertzen dituzte? Karo es que guk damos por supuesto muchisimas cosas, ez? Guk ematen dugu osea alde aurretik suposatzen dugu herrialde guztietan gauzak ulertzeko modu igualak dutela, ez? Todo, desde desde esku orri bat de informativo hasta que se yo, ez? Eta esaten duzu ba igual ez? Igual beraien herrialdean beste formatu bat daukate beste modu bat informazioa jasotzeko (E-5).

Arroces del Munduko kartelean adibidez, eman genion garrantzia hizkuntza askotan egotea idatzita, ba jendeak ulertzeko. Baina, igual beste modu batera ere egin daiteke, ze pertsona batek ulertzea kartel horretan zer jartzen duen, ez du esan nahi apuntatuko dela. Ze es que, bertako kuadrillak bai apuntatu ziren, baina kanpotarrak zirenak ziren Ekinetik etorrita, SOS Racismotik etorrita eta Gurutze Gorritik etorrita eta beste guztiak... Eta zentzu horretan ikusten dut udaletxeak, ez dakit exactamente zer eta nola, baina zeozer egon beharko lukeela inplikatzeko pertsona horiek ere bai. Eta informazioa heltzeko eta benetan azaltzeko zer dan (E-3).

Y también los inmigrantes necesitan mucha sensibilización, más formación y charlas de información para saber cómo funcionan las instituciones y cómo funciona la sociedad si no han podido buscar e investigar ellos por sí mismos (E-6).

Gainera, aurrez-aurreko kontaktu horrek, ulermena errazteaz gain bi aldeen arteko elkar-ezagutza ere ahalbidetzen du, eta horrek enpatia: “ze zuzeneko egoerak ezagutzen ez dituzunean gatz daukazu haren zapatetan jartzea” (E-5). Batzuetan harreman gabeziak elkar-ezagutzarik ez izatea eta aurreiritzien garapena dakar.

El problema de la inmigración la vemos cuando uno tiene un problema (asienten varias). Porque cuando yo tengo un problema de estos, claro, al final es, pues le hecho la culpa al que no le conozco o al que ha llegado el último y le echo la culpa a él. Y, por otra parte, él me echa la culpa a mí: “Porque claro, no me dejas, por claro, como soy inmigrante, no me dejas. Y ya está”. Entonces, cuando nos conocemos, conocemos la realidad, ya no vemos que éste sea inmigrante, sino que vemos que, ostras, es una persona (ET).

Eta aurreiritziak aztertzerakoan ere atzeritarren jatorriak badu eraginik. Ez da berdina Europatik edo Estatu Batuetatik datorren pertsona bat —edo beste jatorri batetik izanik ere egoera ekonomiko onean—, Latinoamerikatik etorritakoak ere askotan kultura, erlijio zein hizkuntza aspektuetan antzekoagoak sentitzen ditugulako edo lan-merkataturatze azkarragoa dutelako begikoago ditugu. Aldiz Afrika zein Asiatik etorritakoekiko begikotasuna txikia da —azken hauek, noski, egoera ekonomiko xumean datozenen—.

Es que badakizu zer gertatzen dan? Gero dauela hor e... txutxumutxu asko, eta hor zurrumurru asko hortik, e... Ba... delinkuentziarekin lotuta daudenak, drogen asuntoarekin lotuta daudenak, e... que si las bandas, que si... guzti hori Arrasaten entzuten da, entzuten da, hori hola da. La banda de los latinos, porque beti daudela ez dakit non. [...] Entzuten dena batez ere gehien, gehien da latinoamerikarrak, marokoarrak, marokoarrak e... saharauiak ez hainbeste [...] Eta gero pakistandarrek. Hoiiek dira, holan gehien e... zera, baina bueno si eres Aleman alfombra roja (E-5).

Baina nik uste dut dela, hori, itxuragatik eta izateko moduagatik ze azkenean ba, latinoak dira más parecidos, o sea... [...] Bai, bai, desberdintasun bakarra ba ez dakit, nik esango nuke ba, gastronomía, bastante erlijiosoak direla eta azentua. Y por lo demás, gauzak ulertzeko momentuan eta, nolabait mundua ulertzen dugu era oso antzerakoan. Eta musulmanekin adibidez, ba ez (E-3).

Askotan komunikabideetan jatorri hauei ematen zaien trataerak ere ez du laguntzen bertako jendearen ikuspuntu eta jarrera baikorrak garatzerako orduan. Jokamolde ezkorrei lotuta agertzen dira, delitugile modura, eta horrek herritarrengan aurreiritzi ezkorrek garatzeko oinarri gisa balio du.

A ver, egoten dira, ez dakit egon zan tirote bat gizon pakistani batekin orain dela denboraldi bat, horrek ez dau laguntzen. O sea, horrek laguntzen dau estereotipo eta aurreiritzi gehixau generatzera. Ez dotza laguntzen elkar bizitzari, nere ustez. [...] Gero esaten zan igual, zala ajuste de cuentas, droga kontuko zeozer... ez dakit. [...] Pakistandarrek gertatu zana, hori publikau zanian: “Ba ez dakit zenbat pakistandarrek defraudau dabe, ez dakit zenbat miloi euro Lanbideri”. Pfff, hori behai... Izan zanian behai zeozer, hemen Arrasaten dagoela bastante poblazino pakistandar eta bastante dirazela RGI perzeptoreak, hemen Arrasaten

bizi dan jende askori, asko afektau zautzan zeozer eta zelan publikau zan hedabideetan eta zelan, ba hori, o sea, ez eban lagundu bapez pakistandarrek... jendiak pakistandarren inguruan daukan perzeptzioak edo hobetzera, edo ez dakit, o sea... (E-2)

Aipatzen denez nahiko jarrera asimilazionista nagusitzen da Arrasateko biztaneleen aldetik: eurak etorri direnez, ahalegina ere euren aldetik etorri beharko lukeeneko ustea zabaldua dago. Aldiz hainbat elkarrizketatuk uste du ikuspegi hori alde batera utzi beharko litzatekeela eta bertakoen aldetik esfortzu gehiago egin beharko litzatekeela, bizikidetza harmoniatsu bat lortzeko prozesuak alde bikoa izan behar duela onartuta.

Jo ba nik uste dot zelabait hemen bizi garenok eta hemen hainbat eremuetan lan egiten dugunok zelabait hori erreztu egin beharko genukeela, erreztu egin beharko genukeela eta guk be emon biharko genuke lehenengo pausua. Hau da, beti egoten gara itxoitzen... a ez etorriko die! A ez barkatu es que igual guk behai egin behar dugu lehengo pausoa beraiek sentitzeko, ez? Ongi etorriak direla eta benetan prest gauzela eurei eskaintzeko behar dutena (E-5).

Ez dute beraien bizitza guztiz aldatu behar. O sea, ni egunen baten kanpora baldin banao, ba nire euskara gustatuko litzaidake mantentzea, adibidez. Eta ez litzaidake gustatuko Marruekosera joan behar banaiz bizitzera, norbaitek behartzea niri beloa jartzera, ze ez doa nire erlijioarekin. Orduan ez diot nik, benetan sinisten duen emakume bati behartuko kentzera. Nahi baldin badu eraman, eraman, baina hemengoa errespetatu eta, nik uste dut konbibentzia posible dela (E-3).

Por eso digo que cada uno está en su carril y que es como que cada uno está esperando al otro. Sí, pero no hay todavía eso. Por mucho que digamos que estamos trabajando eso, hay algo ahí que todavía no da mucha esperanza si no se trabaja la convivencia. Yo siempre hablo de los dos puntos, porque sabes que la convivencia es mutua. Los de aquí tienen que dar de lo suyo y bajar un poco. Y los de allá también tienen que dar de lo que pueden y tener ese respeto (E-6).

Bertakoek euren aldetik elkarrengana egokitzeko esfortzurik egiten ez badute eta atzerritarrekiko jarrera asimilazionista erakusten jarraitzen badute, askotan atzerritarrek euren identitatea arriskuan ikusten dute eta hori berresteko jarrera garatu; horrek bi “taldeen” —bertakoak zein atzerritarrak— arteko banaketa eragiten du, leku berdinean bizirik ere.

Eta badaude hemengo gauza batzuk, ba kosta egiten zaizkienak asimilatzea [musulmanei] eta nik ulertzen dut, e? Ze da, esatea nolabait: “Ez, es que zure lurraldekoa... ez. Eta orain da hau”, por narices. Eta nik ikusi dut hori, asko egiten dutela taldea beraiena mantentzeko eta ulertzen dudala ere bai, baina horrek oztopatzen du benetan integratzea (E-3).

Dena den, eta harremanak sustatzearen garrantzia hori oinarritzat hartuta, Arrasateko herriak baditu hainbat ekimen martxan bertako eta atzerritarren arteko kontaktu eta elkar-ezagutza hori ahalbidetzea helburu dutenak: Munduko Arrozak

—arroza era desberdinetara prestauz kulturategotasuna bermatzen duen ekimena—, ipuin kontaketak —kultura desberdinetakoak eta hizkuntza desberdinetan egiten direnak—, Auzoko —euskarara hurbildu nahi duten auzokideak, eta euskaraz bizi diren auzotarrak, modu ludikoan elkarrekintzan jartzeko ekimena—, Emetruke —emakumeen arteko jakintza elkartrukea burutzeko gunea—, Bizilagunak —bertako familia batek eta familia atzerritar batek elkarrekin bazkaltzeko aukera ematen duen ekimena—, atzerritarrekiko estereotipo eta aurreiritziekin amaitzeko tailerrak, etab.

Ipuin kontaketa egiten ditugu bi hilabete behin, ba igual Arrasateko beste... Arrasaten bizi dan eta beste kultura batetik etorri dan pertsona bat, hartzen dogu, ba herrialde desberdinak eta kontaktzen dabe euren herrialdeko ipuin bat umieri. Euren hizkuntza natiboan eta gero euskaratu eitzen da, edo bueno, eitzen dogu holan elkarlantz bat politza. Eta umiek ikusteko beste kultura batetako pertsonak, beste hizkuntza batzuk entzuteko bebai (E-1).

Tailer hauek dira Emetruke, hau da, emakume talde baten elkartzen gara eta gure abileziak konpartitzen ditugu denon artean eta hor juntatzen gara juntatzen garenak, bardin da nundik handik edo bestetik eta bakoitzak zerbaitetan abilezia baldin badauke besteoi eskeintzen dozku edo guk eskaitzen dogu. Eta saiatzen garena da batez ere hori, kalera urtetzea eta zelabait e... konpartitzea, partekatzea, ez gu barruan gelditzea baizik eta herrira ateratzea eta azaleratzea (E-5).

Arrasate está trabajando para la convivencia y está haciendo muchos programas. Creo que somos un grupo que está haciendo más de lo que puede para trabajar la convivencia. Y lo sé porque formo parte de ello. Lo estamos haciendo todos estos años. Por ejemplo, en Bizilagunak lo hacemos. ¡Y cuánta gente se apunta! Por eso te digo que el grupo que está trabajando lo está haciendo lo mejor que puede (E-6).

SOS Arrazakeriak adibidez, ditu aurreiritzi eta estereotipoen kontrako tailerrak eta hemen Arrasaten egonda dare. Udaletxeak kontratauta (E-2).

Erakusten duten eraginkortasunagatik Arrasateko herrian egiten jarraitu beharreko ekimenak lirateke aipaturikoak elkarrizketatuen arabera. Halako ekimenak bisualak dira eta burututako eztabaida taldearen arabera hori da herritarrengana gehien iristen dena, hitzaldiak edo tailerrak baino gehiago: “Yo creo que lo visual, en carteles, en vídeos, en anuncios, en lo que sea es lo que llega a toda la gente porque las personas tienen su propia vida e incluso a nosotros nos cuesta ir a los talleres” (ET). Eta ez soilik hori, egiten dena baino gehiago egitea ere faltan sumatzen da, elkarte asko dago Arrasaten, baina askotan oso babesgabe sentitzen dira, eta lan profesionalaren gaitetik boluntariora nagusitzen da, ez dagoelako jendea kontratatuzko lan babes ekonomiko. Zentzu horretan, udalari elkarteekiko babes hori eskatzen zaio.

Zentzu horretan, bai udaletxean aldetik nik botatzen dut faltan, ba adibidez Munduko Arrozak bezalako ekimen gehiago. [...] Aurten egin behar da bigarrena. Antolatzen gabiltza udaletxearekin batera eta aurten egiten da bigarrena eta horrelako gehiago faltan botatzen ditut, bai. Bai ezagutzeko, aukera edukitzeko kanpotarrek beraien kultura eta erakusteko,

azaltzeko beraien egoera,... askotan ezagututa pertsona bat ba, enpatizatzen duzu eta alderantziz, beraiek ezagutzeko bertako ohiturak, bertako kultura,... pixka bat konbibentzia hori errazagoa izateko (E-3).

Nosotras somos trabajadoras, pero voluntarias también. Porque metemos horas a cascoporro porque somos una asociación pequeña y no pode... No tenemos recursos económicos como... Entonces somos trabajadoras y voluntarias para todo lo que... (ET).

Alabaina, halako ekimenetan kontrako errealitatearekin aurkitzen gara, oro har: autoktonoak falta dira. Badirudi atzerritarrek soilik parte hartzeko sorturiko ekintzak direla eta dauden autoktonoak euren egunerokoan immigrazioaren bueltan lan egiten duten entitateetakoak izan ohi dira, hots, elkarteetako kideak zein udal eragileak. Herritarrak gehiago gerturatzeko ahalegina egin beharko litzateke beraz.

Nik uste dut jendeak baduela gogoia, benetan e... badago hor gizartean Arrasateko gizartean badago hor zati bat non benetan gure dau, ez? Zelabait dituen aurreiritziak apurtzea eta, ez? Eta benetako ezagupen erreal bat eukitzea, baina igual batzuetan ba hori ez dugu asmatzen edo ez dugulako e... nola esan, talde gehiago inplikitzen. Ze klaro kasu honetan Munduko Arrozak zeintzuk antolatu dugu? Ba Gurutze Gorria, IMME, SOS Arrazakeriak, Ekin e... a ver e... Activos por un Mundo Solidario, da talde berri bat Nikaraguako batzuk sortu dute, Saharaldea eta ba... eta udalak, ez? Osea ematen du, izan behar duela, gauza dana gurea (E-5).

Los que estamos en esto, en este espacio somos los que participamos. Que al final, claro, lo que no sabemos es cómo hacer el enganche a los ciudadanos, para la gente del pueblo. O sea, porque al final eso es lo que queremos. Queremos que tengan la realidad para que luego tengan una opinión crítica... (ET).

Aurreiritziak ezabatzeko ekimen zehatzak ere egiten dira Arrasateko herrian, baina aipatzen denez beti norabide berean: autoktonoek etorkinekiko izan ahal dituzten aurreiritziak deseraikitzea bilatzen da, “etorkinak” multzo homogeen gisa hartuz, izendapen horrek jatorri desberdinak eta kultura anitzak jasotzen dituela ahaztuz. Euren artean ere aurreiritzi ugari dagoela komentatzen da, eta hor zerbait egitea interesgarria litzatekeela.

Bueno, nik beti esaten dot, zurrumurruak eta kontu hau, aurriritziak..., beti lantzen da en la misma dirección, hau da, los que tenemos nosotros hacia ellos. Beti. Danok danok lantzen dogu de la sociedad vasca, los zurrumurrus que tenemos hacia los inmigrantes, baina euren artean be badaz zurrumuru pila bat. Eta hori ez da lantzen, e? Ez da lantzen, baina kriston aurriritziak daukie eta... [...] Adibidez, marrokixak eta saharauixak. Edo arabiarrek, Magrebekoak contra los latinos. Barbaridades he oído de ellos, eh? Por qué? Porque consiguen trabajo antes por el idioma. Si, si, es que holan da (barreak), es que holan da! Baina ez da lantzen hori. [...] Baina diskurtso danak, da direkzio bakarreak eta ez da holan. Zurrumurruak, diskriminazioa landu behar dogu orokorren, no gu euren kontra. Ez, es que euren artean be kriston aurriritziak daukie [...] nik uste dot ezin dogula zurrumurrutaz eta

aurrituzie ez dogunian berba, ezin dogu kultura jarri erdigunean, o sea, jatorria jarri erdigunian. Ze danok daukogu danorekiko, ez? Eta landu behar da de forma global (E-1).

Horren haritik, elkar-ezagutza esparruak sortzearen beharra azpimarratzen da, aurreiritziak ezabatzen laguntzen duelako. Eta jadanik egiten diren ekimen batzuen arrakasta azpimarratzen da: *bizikidetza eskolan* izeneko programa, Ekin elkartetik bideratua eta helburu gisa, besteak beste, atzeritik etorritako pertsona batek izandako ibilbidea ikasleekin partekatzea duena; edo sentsibilizazio dokumentalak egitea, atzeritarren —batik bat emakumeen— migrazio ibilbideak eta gizarteratze prozesuak ezagutzeko, IMMETik bideratua.

Ezagutzen dot jendea, e? Pues entzutea: “No, esas las de los trapos, las de los velos...” ezagutu pare bat eta ja ez erabiltzea bocabulario hori. Ba horrelako, nik uste dut hori, gertutasuna falta dela, nahastea benetan eta ezagutzea persona (E-3).

Saioetako bat da atzeritik etorritako hainbat pertsonen kontatzen diete gazteei beraien esperientzia, beraien bizipena. No tiene porque ser traumatico ni dramatico, eh? [...] Kriston arrakasta euki dute, bainon kriston arrakasta. Hau da, entzutea en primera persona gauza horrek asko eragiten dute porque orduan kontzientzia hartzen duzu, entzun egiten duzu zure bizilagun batek, hori bizi izan dau (E-5).

Hacemos documentales de sensibilización. En esos documentales hemos recogido testimonios de mujeres que han contado su proceso en temas como convivencia, vivienda, extranjería, trabajo, velo, etc. Hemos acercado a la sociedad a esas mujeres, su forma de pensar y todo esto (E-6).

Dena den, batzuetan harremanak normaltasunez gertatzen ere utzi behar dela aipatzen da, denbora eman ez eta egoera fortzatu gabe. Eztabaida taldean parte hartu duen kide batek garai batean euskaldunei Estatu Batuetara edo Latinoamerikara joatea tokatu zitzaizenean egiten zutena ekarri du gogora: euskal etxeak sortzen ziren, herrimina partekatze eta euskal identitatea mantentzeko, hizkuntza zein ohitura kulturalak.

Nik uste dot, o sea, nik deukot sentsaziñoa, batzutan da como... hau landu ein bida, hau landu ein bida, hau landu ein bida, ez? Eta pierde la xarma natural esa ¿no? O sea, fluxu horrek naturalki ematia, ez? Elkarrizketak... beti como que gabiz bultzatzen, ez? Eta igual eman behar dogu lehenengo pausuak hori sortzeko, baina hasi biher gare be, igual normaltasunez jorratzen gaiak. No como... etorkinentzako, etorkinak... ez dakit, herritarrak, o sea, más... no sé (E-1).

Elkar ezagutzen, poliki-poliki. Gauza horiek egun batetik bestera ezin dira, ez dago hola kultura aniztasun horretan ba sekulako aberastasuna elkartzeko eta hori. Hortik urruti gaude bainan gutxiengo elkar bizitzean nik esango nuke normaltasunean bizi gerala (E-4).

Ostia, cuando los vascos fueron a Argentina hicieron... También se relacionaron entre los vascos. Sería... Tenían difícil y abres un euskal etxea y serían allí también... Serían... (ET).



3

Gizarteratze esparruak

Gizarteratze egoerari dagokionean, askotan atzerritarrek une latzak bizi dituztela aipatzen da elkarrizketatuen aldetik, batik bat, iritsi eta berehala. Esparru desberdinetan jasaten dituzten arazoak aipatzen dituzte: dokumentazioa, errolda, etxebizitza...

No entiendo, que te puedas quedar en la calle, que no estes empadronado, que no tengas derecho a nada, es que no me entra en la cabeza, te lo juro. Es que da un tema que... nik uste dot dela que es lo que peor llevo nire harrera zerbitzuan porque me siento impotente, osea me siento impotente porque ez... daukaten errekurso bakarrak dira bideratzea a el BAZ — Biztanleen Arreta Zerbitzua— edo gizarte langilearengana, pero a mi eso no me asegura que les vaya a ayudar con el problemón que me han venido. Ulertzen doztazu? (E-5).

Orain arte, txartel gorriarekin etortzen ziren, dela beraien identitate... o sea, gure DNI-a bezala eta NIE zenbaki batekin, baina orain ez dakigu zergatik aldatu egin dute eta etortzen dira txartel zuriarekin, dela horren aurretiko pausua. Orain arte ziren bi-hiru hilabete eta ematen zitzaaien gorria. Oraintxe da zuriarekin sei hilabete eta ezin ditugu enpadronatu. Ezin ditugu enpadronatu, horrek esan nahi du ez daukala eskubiderik osasunerako, hemen bere medikua edukitzeko. Ezin diegu kontu korronte bat zabaldu, Gurutze Gorriak horrela funtzionatzen duela, ezin du Mugi sozial bat eduki... o sea, arazo pila bat (E-3).

Nolanahi ere, zaurgarritasun egoera horren erantzulea ez da udala eta askotan ezer gutxi egin dezake. Alabaina, hurrengo ataletan udalak gizarteratze esparru nagusietan egin dezakeen apurra jasotzeko ahalegina egingo da, hala nola, hezkuntzari, etxebizitzari, enplegua eta gizarte prestazioei, eta osasunari dagokionean.

Hezkuntza: gaurko tirabira, etorkizuneko normaltasunerako bidea

Orokorrean Arrasateko herrian bizikidetzaren harmoniatsua dela esan badugu, hezkuntzaren esparrua da ziurrenik harmonia hori kolokan agertzen den esparru nagusietariko bat. Arrasateko ikastetxeetan haur etorkinek duten presentzia oso desberdina dela aipatzen da. Eskola kontzertatua —ikastola, Arizmendi— eta publikoa —herri eskola— daude Arrasaten, lehendabizikoa handiagoa da, zentro gehiago ditu —haur hezkuntzako hiru, lehen hezkuntzako beste hiru eta bigarren hezkuntzako bat—; publikoa berriz txikiagoa da eta eraikin berean daude ikasle guztiak —haur hezkuntzako bi eta lehen hezkuntzako bat—. Zentzu horretan, proportzionalki, Arizmendik ikasle etorkin gehiago artatu beharko luke, baina errealitatea bestelakoa da eta atzerritarren presentzia askoz nabariagoa da publikoan. Horrek kezka eragiten du hainbat elkarrizketaturengan, nolabaiteko getifikazio bat sortzen ari deneko susmoa agertzen dute.

Gero hezkuntzan niri beldurra ematen dit getoak sortzen hasita dauzela, ez dakit ze sistema... klaro hemen daukagu herri eskola eta pribatu kontzertatua [...] Baina nik daukat sentsazioa que esta muy descompesado. Muy muy muy descompesando (E-5).

Bueno, hemen ikastola edo eskola, erlijiosorik ez dago. O sea, dago publikoa eta kontzertatua, dela Arizmendi. Eta bai, gu publikora joan garenean ba hori, asko kanpotarrak, o sea, zoaz a la hora de recogida eta guraso guztiak dira kanpotarrak. Bai, eta nik uste dut ez dala komeni ezta, ze es que ja hortik hasten dira nolabait banantzen (E-3).

Claro, no es lo mismo la de centros que tiene Arizmendi en Arrasate, que tiene de LH tres centros que yo sepa, que uno que tiene Erguin –Herri eskola-. Entonces claro, se colapsan los alumnados inmigrantes en un centro (ET).

Zentzu horretan iskanbila sortu da bi eskolen artean, publikoak kontzertatuari erantzukizun gehiago eskatu dio ikasle atzerritarrek onartzerakoan: “haur etorkin pila bat daukien eskolek ikusten dabe baliabide edo esfortzu gehiago egin behar dabela. Orduan, euren lan funtzionamenduan, klaro, arazoak sortzen ditu horrek. [...] [Baina] es que ikastolak no da su brazo a torcer” (E-1). Udala ere saiatu da oreka bilaketa horretan laguntzen baina “ikastola kooperatiba baten barruan dago, ez dugu hori ahaztu behar. Eta Arrasaten kooperatibak agintzen du” (E-1).

Banaketa orekatuagoa bilatze horretan eragiten duen beste funtsezko faktore bat maila ekonomikoa da, jadanik bizikidetzaren giroaz mintzatzerakoan aipatu dena. Normalki, familia etorkinek maila ekonomiko apalagoa dute, eta beraz askoz zailtasun gehiago aurkezten dituzte ikastolak ezartzen dituen hileroko kuotak ordaintzeko. Horrek gizarte banaketa dakar maila ekonomiko apala duten —gehien bat atzerritarrek— eta maila ekonomiko ertain-altukoak —gehien bat autoktonoak— artean. Ildo horretatik, elkarrizketatuek Arizmendiri atzerritarrentzat onargarria litzatekeen formula bat galdegiten diote.

Hemen ikastola karua da. Kooperatiba baten barruan dago, joaten diren ikasleak maila ekonomiko erdi-altuko familiako haurrak dira. Bai? Noski, badaz etorkin batzuk eta igual geroz eta gehiago. Baina, [...] Klaro, familia batzuk ezin dute, nahiz eta txikia izan kuota, ez dakit zenbatekoa den orain, igual 50 euro hilean. Es que igual familia batzuk ezin dute ordaindu (E-1).

A ver, horretarako klaro pribatu kontzertatua ordaindu egin behar da eta dexente [...] nik uste dut Arizmendik (ikastola) eduki beharko lukela formula bat atzerritik datozen guzti horientzat aukera emateko nahi baldin badute Arizmendin ikastea, eta eduki beharko luketela familia horrek aurre egin ahal izateko horri. Hori nola? Pues ahi ya... la madre del cordero, auskalo. Baina bai egon behar litzake bestela azkenean getoak sortzen ditugu (E-5).

Eta bai, nik uste dut hor ere bai egin beharko zutela nolabait, ekonomikoki... ekonomia baldin bada arazoa, igual kontzertatuetan plaza batzuk gorde pertsona horientzat eta horrela... ez dakit zein kriterio jarri erabakitzeke zein bai zein bai zein ez, baina gehiago nahastu (E-3).

Gero eskolena bebai, ume etorkinen seme-alaba gehixenak dare publikan, baina hori, ez dakit udalak ze ein al daben, ba kontzertaueri holan bronka txiki bat botatzeaz gain, ez dakit zer ein al daben, ze ez dauka... (E-2).

Matrikulazioak eta horien kostuak alde batera utzirik, hezkuntzari lotuta beste aldagai bat agertzen da: ikasleek ikastetxeetan behar dituzten materialak oso garestiak direla, batik bat aurrerapen teknologikoak eta horien erabilera dela eta. Horrek are zailagoa bihurtzen du etorkin askoren egoera.

Ia hemendik aurrera koadernoak ez ditugu erabiltzen, tablet erabiliko ditugu. Ja! Balio du ba 300 euro ez dakit zer, nundik? [...] Ari dira justu-justu bizitzen. [...] Eta ibiltzen dira ezinean, ze dezente jende dago, bai ikastolarekin eta bai eskolarekin zorretan dagoena. [...] Ez ordaindu eta azkenean azterketa garaia datorrenean, ez diotela azterketarik egin. Zorretan daudelako, zorrak ordaindu arte... edo pixka bat bultzatu nahian ordainketa, baina [...] ez da nahi ez dutelako, ez dutelako nahi ordaintzea, alderantziz: da oso justu justuan bizi direla (E-4).

Ikastetxeen arteko banaketa desorekatua dela medio, herri eskola publikoko ikasleek aniztasuna gehiago bizi dutela aipatzen da, eta beraz errealitate hori naturalizatuagoa dutela; aldiz eskola kontzertatuan atzerritar gutxiago daudenez urrunago dute errealitate hori. Horrek immigrazioaren inguruko aurreiritziak garatzerakoan eragina izan dezake, askotan ezezagutza izaten bait da horien oinarria.

Adibidez, institutuan gelak anitzak dira, dago Marruekoeko bat, latinoamerikar bat, ez dakit zer. Elkarrekin daz egunero, ezagutzen dira, ez daukate hainbeste aurreiritzi. Ikastolan gutxi daz, igual ez dute bizitzen aniztasuna (E-1).

Zenbaitzutan ikasle horiek bertan jaiotakoak dira, baina ikastetxeen aldetik “integratu ez diren familia” gisa jo izan dira hizkuntzarekin zailtasunak dituztenean edo familiak eskolarekin kolaboratzen ez duela ikusi izan dutenean. Zentzu horretan, ikastetxeen

aldetik jarrera nahiko asimilazionista dela aipatu izan da eta horrek kezka eragiten du.

[Ikastetxeetatik esaten denez] eskola-familia kolaborazioa oso eskasa da. Gurasoak ez dira bileretara etortzen. Gure gizarte-baloreak barneratzea kostatzen zaie. Barneratu behar dituzte gure gizarte balore guztiak? O sea, gure artean ere ez gara berdinak. [...] Orduan, niri honek... prekupau egiten doza (E-1).

Zentzu horretan irakaslegoarekin informazioa eta gaiarekiko sentsibilizazioa lantzea beharrezko ikusten da. Batzuetan horien aldetik minduta sentitu ahal izan dira ikasle zein familia atzerritarrak.

Primero hay que hacer una sensibilización a los profesores. Eso es lo primero. Y dejarles entender lo que puede suponer cualquier palabra que utilicen. Tienen que saber cuál es el peso de esa palabra (E-6).

Ikasle atzerritarrek hainbatetan arazoak izan dituztela diote zenbait elkarrizketatuk. Batik bat nerabezaroan iristen direnek hizkuntzarekin topatzen duten zailtasuna agertu da, horrek batzutan bullying egoerak gertatzea eragin duelarik. Bestalde, nerabezaroan iristen direnek bertakoekin nahasteko ere arazoak dituztela aipatzen dutela nabarmentzen da talde eztabaidan, eta normalki, helduen kasuan gertatzen den modura, soilik euren jatorri berdinekoekin harremantzen direla.

Pixka bat adinarekin datozen umiak pf... sufritu asko sentidu horretan (euskarari buruz ari da). Bai bullying kasu batzuk edo antzeko zerbait izan dira porque 12, 10 urteko mutil bat datorrela Nikaragutatik, sartzen duzu ikastola batian eta nahiz eta refortzuak eta, han ikasle ona ez bazan izan ba gelditzen da bertako tontua bezala eta jendeak... [...] eta are eta gehio zuk ez baduzu egiten esfortzua integratzeko modu azkar batean, ba sortzen dira halako gauzak, ez? (E-4).

Esta mañana he estado con un talde de 16 años [...] Ellos me decían que no tenían espacio donde relacionarse o... Ellos veían la necesidad de... De los chavales jóvenes que llegan a Arrasate, jo, pues de relacionarse y tal, pero que no encuentran la manera ni el cómo. [...] Las horas de clase sí, pero fuera de clase no se relacionan, sino que se dividen en subgrupos, ¿no? O sea, pues los latinos, los marroquí, los no sé qué. O sea, yo creo que eso es lo que se podía igual trabajar (ET).

Claro, muchas veces la realidad de esos alumnos es muy crudo. Y yo les pongo como ejemplo a todos lo mismo: “Imaginaros que tu madre y tu padre se han ido a Colombia cuando tú tenías seis años...” Porque normalmente no vienen todos a la vez. “Y a ti te han dejado con la abuela o con el tío o con los hermanos mayores. Y luego vienes aquí y te plantas en Arrasate con 13 años. Te mandan al instituto, a la ikastola, el euskera y, joder, es que no quieres ni salir, o sea...” La situación emocional que tienen es muy fuerte (ET).

Nolanahi ere, gaur egun iskanbila iturri izan daitekeen esparru hau etorkizunera begira berezko integrazio naturala ahalbidetuko duen abagunea izango dela uste

da. Jatorri desberdinetako haurrak txikitatik nahasian badabiltz, hor ez dago aurreiritzientzako lekurik. Sortutako gune natural horiek babesteko ahalegina egin beharko du gizarteak —kasu honetan Arrasateko herriak—, horretan udalak zein familiek erantzukizuna izango dutelarik.

Orduan etxean eta gizarteak egin behar duena da naturaltasun hori babestu, hau da, zuk naturaltasuna zure gelan bizi duzuna, kanpotik, kanpoan dauzenak, ez dezatela kontaminatu. Ze askotan helduak gare kontaminatzen dugunak, sin duda alguna, ze hor sartzan dira naturaltasunez, gizarte natural bat dago hor eta hori da babestu behar duguna eta hori helduei tokatzen jaku. Osea ez kontaminatzea, ez kontaminatzea. [...] Ni oso positiba naz baina nik ikusten dot e... gauzak oso txarto egin behar gintuzke helduok, osea sortu diren mini gizartetxo horiek, ez? Eskoletan sortzen diren mini gizartetxo horiek modu natural baten ez jarraitzeko beraien bidea eta beraien etorkizuna eraikitzen osea oso txarto egin beharko genuke. [...] Hor etorkizun baten nik ez dut biziko oraindik aurreiritzi asko dagoelako, kaka asko dagoelako, baina niri ez zait tokauko bizitzea baina, nik espero nire semiek eta haren seme-alabek be biziko dutela beste modu baten, bai, bai (E-5).

Zentzu horretan jada belaunaldi gazteenengan aldaketa nabari dela azpimarratzen du elkarrizketatueteriko batek. Estereotipo eta aurreiritziak oso errotuta badaude ere oraindik gizartean, gazteenengan iritzi baikorrako aurkitzen dira eta errealitate anitza askoz ere naturalizatuagoa dute.

Lo que me ha gustado más cuando lo hemos hecho ha sido ir a espacios donde charlamos entre todos, tanto con jóvenes de aquí como con los de fuera, de América Latina y de todos los sitios. Eso me ha gustado muchísimo y me ha dado la impresión de que los jóvenes no son como los adultos. [...] Es muy diferente y muy abierto, sí. Y sí que te da esa sensación (E-6).

Etxebizitza: eskuratzeko ezintasuna eta getifikazioa

Bizileku bat bilatzeko zailtasunak nabarmentzen dira etorkinentzat Arrasateko herrian. Unibertsitate herria izanik, etxeak alokairuan dituztenek normalki soilik ikasle direnei alokatu nahi dizkietela aipatzen da, alokairuak gurasoek ordaintzen dituztenez alokatzaileei horrek segurtasuna ematen die. Aldiz atzerritarren kasuan alokairuak ordainduko ez dituzten beldurra eta intseguritatea gailentzen dira, eta horrek erabat eragozten die sarbidea etorkinei.

Etxebizitza da imposible, imposiblea da etxebizitza bat lortzea Arrasaten. O sea, oso zaila da etxebizitza bat lortzea Arrasaten. [...] Hori da niretako oraintxe problemarik handiena Arrasaten, etxebizitzarena. [...] Ba, klaro, hemen dago unibertsitatea, universidad de los ricos, como le digo yo, porque, claro, cualquiera no puede pagar 5.000 euros al año de universidad. Entonces, es la universidad de los ricos. Orduan, datoz Euskal Herritik hainbat ikasle, baina klaro pisuak hartzen dabe eta horiek bai, ze gurasoak pagetan dabe. Eta, klaro, sartzan ditugu etorkinak como: “Estos son pobres, etorkinak, digamos, son pobres, no tienen dinero, no me van a pagar” (E-1).

Guri etorri jakuz esatera inmobiliarietan, que no tienen pisos en alquiler para extranjeros osea para inmigrantes. [...] Daudelako zurrumurruak oraindik jendeak ditu hor bai bai barru barruan bai bai. Nik ez dakit zer pentsatzen duten, osea familia bat etortzen bada zure etxera bueno zuk egiten duzu kontratu bat ezta? Como con cualquiera. [...] Baina es que gainera nik uste dot ez dela bakarrik jabeak es que nik uste dot dala baita e... la propia comunida de vecinos que influye y que presiona, eh? (E-5).

Deba Goienan, oso gaizki dago, aukera gutxi eta gainera aukera gutxiago kanpotarrak izanda. Inmobiliaria askok zuzenean eskatzen dituzte nominak eta kontratuak. Hauek ez daukate lan egiteko baimenik, lehenengo behintzat, zazpi-zortzi hilabetetara arte. Orduan, o sea, da imposible planteatzea. Gero, hori, prezioak [...] [eta dituzten aurreiritziak] “Es que son unos cochinos y me han destrozado el piso”, “los he tenido y me han dejado de pagar y me ha costado la vida echarles de casa” eta horrelako komentarioak (E-3).

Alokairuena, o sea, bai, alokairuena da benetako drama bat. O sea, ez dago... aparte de que alokairuak super garestiak dare eta hori hola da, ez dago, o sea, etorkin moduan alokairura sarrera da mila aldiz zailagoa. Eta da arlo bat nun oso zaila dan zeozer eitzia, ze zu jun zeinke inmobiliariaren kontra eta esan zeinke inmobiliariak ezin dabela diskriminatu eta hor ein zeinke lanketa bat, baina gero azkenean etxien jabeak, pertsona indibidualak eitzen dabe gogoak ematen dotzena. Eta arrazismo sozial hori, xenofobia sozial hori ondio hemen da kristona, orduan etxien jabeak ez dabe nahi etorkinak. Al bada, nahixau dabe ez eukitzia etorkinak etxian, argi dake, esan eitzen dabe lasai lasai eta horren kontra ezin zenke ein ezebez. [...] Xenofobia sozial hori gutxitu arte, orduan da drama bat (E-2).

Es que hay un problema muy gordo en el tema de vivienda. Para empezar, no quieren alquilar las viviendas a las personas inmigrantes, los propios autóctonos. Las propias inmobiliarias son las que hacen esa decisión de: “No, a ti no”, sin el dueño saberlo. Hay casas vacías que no están llenas y gente buscando viviendas. Y yo creo que en ese sentido... No sé cuál es la manera, pero igual habría que informarse qué se puede hacer, o crear un listado de viviendas o... (ET).

Are gehiago, eztabaida taldean aipatzen denez, jabe batzuek atzerritarrei alokatu aurretik nahiago dute etxebizitza hutsik edukitzea, eta horren aurka ezer gutxi egin daitekeela aipatzen da.

Porque dices: “¿Para qué voy a tenerla vacía cuando me genera unos gastos? Pues por lo menos sacar un rendimiento”. Pero hay gente que dice: “Pues no. Pues yo prefiero tenerla así”. Y tú no puedes ir contra eso. [...] Pero tú a un dueño no le puedes obligar y decirle: “Tienes que alquilar porque sí, porque sí, porque sí”. No puedes hacer eso [...] Es una propiedad privada, que el dueño puede elegir si alquila o no (ET).

Hainbatetan, pertsona migratzaileek pairatzen dituzten zailtasunak ikusita entitate desberdinetatik saiakerak egin dira horientzako pisuak bilatzeko. Baina atzerritar batentzako dela ohartzen diren unean askotan ezezkoa jaso izan dute.

Eta bai gertau izan da hori ba... guk bitarteko egin eta pertsona azaltzen darian ba ez, ez? Eta nabarmen... eta gero beti aitzikiren bat edo bestea baina nabarmen da kanpotarra dalako (E-4).

Nik igarri dut asko beraiek deitzen dutenean pisuetara beraien azentuarekin edo gaztelerarekin: “no, no, no, no”. Eta egin dugu proba, nik deitzea zenbaki berdinerara, euskeraz hitz egin eta zita bat eman pisua ikusteko. Eta askotan ere zita eman ikusteko eta esan: “bueno, baina es que ez da niretzat” eta ia esplikatzan diozunean ez, ia ez (E-3).

Egoera horri aurrea hartzeko proposatzen da alternatibarik elkarrizketatuen artean. Esaterako, aukera bat izan zitekeen udalak zerrenda bat egitea alokagai dauden etxeekin eta horiek kudeatu dagoen eskariaren arabera, atzerritarrak ala bertakoak diren kontuan izan gabe, modu neutroago batean. Bestalde, autoktonoen aldetik dagoen etorkinek ordainduko ez duteneko beldur hori gaintzeko ere informazioa helarazi dezake udalak, egoera ekonomiko apalenetan daudenek Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eskatzen badute horrekin batera esleitzen zaien Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarriaren berri emanez, adibidez.

Udalak ematea aukera igual lista bat etxebizitzak alkilau nahi dutenen lista bat sortu eta eurekin bileratxo batzuk egitea... de cómo funciona esto, porque nik uste dut askok ez dutela, ez dakizela dirua daukatenik, edo laguntzak zelan funtzionatzen duten, que tienen una proporción para pagar el alquiler, que no sé qué... [...] Jende askok nik uste dot ez dakiela hori, todos tienen miedo a alquilar las casas, porque los inmigrantes no tienen dinero, holan... ulertzen? Orduan udal moduan, holako gauza bat egiten bada, una recogida por una parte de los que quieren alquilar y los que necesitan alquilar, ez? Amankomunean jartzeko, ba igual se puede informar o hacer unas..., ez? Biztanleriari, al que tiene los pisos de alquiler, de cómo funciona todo esto, ez? Informazio falta dago nire ustez. Eta azkenean, gaizki ulertuak, aurreiritziak, dena dator hortik, informazio faltarengatik (E-1).

Kriston arazoak dare. Etxebizitza, perspectiva legal batetik ezin leike ezebeze egin, baina kanpainaren bat, e... ba hori, jendiari animatzen ez eukitzera hainbeste aurreiritzi. O sea, etxe bat badaukazu eta hutsik badago, alokatu. Eta alokatu edozeini. Bueno, edozeini, ez edozeini, baina ez jatorriaren arabera criba bat eitzen (E-2).

Eztabaida taldean bankuek dituzte etxebizitza hutsen gaia ateratzen da, eta proposamen aipatzen da udalaren aldetik horiek alokairuan jartzeko gonbitea egitea.

Yo lo que hablaba con X era que el banco tiene un montón de pisos vacíos que no están ni en alquiler ni en venta, y a ver si a nivel de ayuntamiento se podría llegar a un acuerdo para, a los bancos, pues de alguna manera o animar u obligar a poner en alquiler esas viviendas. Porque hay un montón (ET).

Talde berean aipatzen den errealitate bat zaintzan lan egiten duten emakumeena da. Horiek askotan interna moduan kontratatatuak izaten dira, baina agureak zaintzen dituztenez une jakin batean hil egin daitezke eta beraz lanik gabe ezezik, etxebizitzarik gabe geratzen dira. Era bat nekeza suertatzen da hauentzat logela bat alokatzeko

aukera: jabeen aldetik datorren ukapenari ekonomikoki jasanezinak diren prezioak gehitzen zaizkio.

Las mujeres que están cuidando un anciano y, por lo que sea, se les ha acabado el contrato. Ellas están estaban... Llevan dos años o tres años trabajando en una casa y no tienen alquilada. Entonces, quieren alquilar y los cuartos, y ésa es una realidad que hay, los cuartos antes costaban a lo mejor, 100, 150€, ahora están subiendo a 300 y 400 porque es un negocio (afirman varias) (ET).

Herrian nabarmentzen ari den segregazio erresidentzialaz ere hitz egiten da. Etorकिन —edo gizarte maila apalenekoen— getifikazio ematen ari dela aipatzen da, hauek Txaeta auzoan pilatzen direlarik, batik bat, alokairu sozialeko etxebizitzak eraiki diren auzoan, hain zuzen.

Eta gero Txaetakoak, adibidez dauzkat lagunak hor bizitzen eta bueno, la india, le llaman de todo, eh? O sea, jendiari entzuten dotzazu... bai, bai, holan esan... es que... Eta adibidez, honek nere lagunak, pareja bat da eta hor bizi dira eta super gustora daudela, o sea, gero se dice de, se cuenta, que hay mogollón de movidas, que ahí venden droga,... eta hor bakarrik? Da estigmatizaziño hori jarri jakola. Egia da be, ba asko eta asko direla etorkinak hor bizi direnak, klaro (E-1).

Gelditu da apur bat guetto bat bezala, ghetto bat eta ez ghetto bakarrik aparte daudelako baizik eta ia guztiz jendea kanpotarrak dira batetik eta bestetik. Eta... hemengo jendeari pisua hor tokatu zitzaiona babez ofizialeko etxeak zirela eta azkenean ezin ondo bizi beraiekin eta alde egin dute, gehien gehiengoak, gehien gehiengoak ba usainak direla, edo ohitura batzuk direla... baina lehen esan dizut, ematen du gatazka latza izan dala eta ez, hori bare-bare jun da dena... nik ez det horiekin bizi nahi, hemen ezin da, ez dago ordenarik (E-4).

Zentzu horretan udalari erantzukizuna eskatzen zaio. Benetako bizikidetzaren harmoniatsua bat lortu nahi bada ezin gara elkarrengandik banaduta egon, beharrezkoa da nahasian egotea, horrek pixkanaka elkar ezagutzea ekarriko duelarik, eta hasieran zaila suertatu badaiteke ere, etorkizuneko bizikidetzaren egoki baterako bidea ireki dezake.

Esan nahi det, nahiz eta etxebizitzaren beharra haundia izan hartu eta dagoen tokian ra bat-batean danak sartu toki berdinean, hemengo jendearekin nahastu barik ba ez dela bidea (E-4).

Las casas de Txaeta para mí es un fallo muy grande, tremendo. Que han agrupado a todos los inmigrantes en la misma calle. Y eso es un fallo. Porque ya sabemos que pasó esto en Francia y no ha beneficiado a nadie. Éste para mí es un fallo muy grande. Porque si tú quieres integrar, si tú quieres que la persona aprenda [...] se trata de que los inmigrantes estén mezclados para que aprendan... yo no digo que la convivencia sea fácil, ¿eh? Porque no es nada fácil ni entre la gente de la misma cultura ni entre los mismos hermanos entre ellos. Porque cada uno tiene que rebajarse un poco para que podamos... ¿no? Entonces, el primer año va a ser difícil, el segundo también un poco difícil, pero luego vas a entender y

aprender cómo puedes funcionar o cómo puedes actuar ante una convivencia de vivienda, por ejemplo. Por mucho que tengas de tu cultura. [...] Que no se quieren mezclar, pero es que tampoco tú has puesto de tu parte para que se mezclen. Porque les has metido allí y les has aislado (E-6).

Nik uste dot udalan aldetik, bai ein biharko zan zeozer getifikazino hori ekiditzera begira edo, baina ez dakit oso ondo zer (E-2).

Etxebizitzaren esparruari dagokionean muturreko egoera litzateke denboraldi batez kalean bizitzea suertatu zaien etorkinena. Eztabaida taldean aipatzen denez ez da Arrasateko ohiko errealitatea: “son casos muy extremos”, aldiz, tarteka gertatu egiten da eta beraz eskualdean aterpetxe bat egotea galdegiten dute taldekideek.

Hay muchos casos que entre una cosa y otra, la casa por barrer. Entonces, se queda una época de tiempo en la calle. Entonces antes sí existía aquí un albergue municipal, el cual no existe en estos momentos y yo creo que sí que es necesario para casos así un albergue, por lo menos en Debagoiena comarcal (ET).

Hay gente que está en el riesgo de quedarse en la calle... [...] Yo tengo familias que van a quedar en la calle. [...] Y tienen ayudas económicas y nadie les alquila. Yo fui con ellas y cuando les han visto con el pañuelo, con el melzo o con el pañuelo o con lo que sea han dicho que no han traído las llaves de la casa (ET).

Enplegua eta gizarte prestazioak: errealitate anitzak

Harrera gizartearen aldetik atzerritarrekiko nagusitu izan den ohiko zurrumurrua da etorkinak laguntzetatik bizitzera datozenekoa, eta Arrasateko herria ez da salpuespena. Ez dago harago doan hausnarketarik herritarren aldetik, eta lan egin beharrean diru-laguntzak jasoz bizi nahi dutela uste da; kontuan izan gabe askotan enpresariaren aldetik autoktonoekiko preferentziazko tratua nabarmentzen dela, eta hori barrera itzela bihurtzen dela etorkinen laneratzea lortzeko orduan, hainbat momentutan irtenbide bakarra diru-laguntzak eskatzea suertatzen zaielarik.

Beitu, jendia kejau eitzen da: “Etorkin hauek datoz diru laguntzetatik bizitzera, porque no trabajan”. Eta beti zera berdina, baina aztertu da benetan.. ematen jake lana? Edo zuk eitzen dozu elkarrizketa bat a uno de Marruecos, a uno de Andoain, ¿a quién coge primero el empresario? Ez dakit... (E-1)

Zentzu horretan enpresen sentsibilizazioa lantzea beharrezkotzat jotzen da, bertako atzerritar jatorriaren arabera kriterioa alde batera utzi dezaten kontratazioak egiterakoan, eta bestelako irizpide profesionalen arabera egin ditzaten aukeraketak.

Igual udaletxetik, enplegu zerbitzua dauela, jo, zergatik ez dogu eitzen sentsibilizazio saio batzuk enpresekin. Hemen daz mila enpresa, ez? [...] Gero, diru laguntzak ematen die

udaletxetik enpresetara kontrataziñoak egiteko. Ba, igual baldintzetan be sartu al dogu pixka bat, ez? (E-1)

Alko bazan enpresekin ein saio batzuk behai, azaltzen arraigo soziala, azaltzen zuk kontratau lezeinkela langile bat, nahiz eta irregularra egon. Eukitzen badozu hori, lau hilabeteko margen bat, ze dago prozesu bat deitzen dala arraigo soziala eta horren bitartez paperak lortu al dituela eta zure enpresan lana ein eta hori bultzatu, sustatu, ez dakit. Halako zeozer, ez dakit (E-2).

Siempre miramos hacia el inmigrante. Y yo creo que hay que empezar a mirar ya, o ya es el momento, de empezar ya a la población autóctona, que son ellos quienes hacen los contratos (asienten varias). Ellos también tienen algo que hacer, o sea, creo que... (ET).

Bestalde, etorkinak enplegu bat bilatzerako orduan askotan galduta egoten direla eta harrera gizartearen babesa beharrezkoa dela aipatzen da. Ez dakite iritsi berriak diren gizarteko funtzionamenduaren berri eta zentzu horretan funtsezkoa litzateke prozedurez informatzea enpleguratzea errazteko. Arrasateko Ekin elkarteak badu horretarako zerbitzu bat, eta planera begira garrantzitsua litzateke hori mantentzea eta indartzea.

Kanpotik datozenak askotan, ez dakizie nundik hasi behar dien bez, porque euren herrietan ez da holan eiten. Orduan, hartu behar da tartetxo bat azaltzeko. Adibidez, hemen daukagu harrera zerbitzua Ekin-ek egiten duela eta holako gauzak azaltzen jake, baina nik askotan galduta ikusten ditzut eta batez ere emakumiek. Ez dakizie nundik hasi (E-1).

Batzuetan lana bilatzeko prestutasuna falta dela azpimarratzen da, dena den, horren atzean autoktonoen aldetik jasotako jarrera ezkorra ezkututzen da hainbatetan. Enplegua bilatzeko saiakera eginik ere askotan bertakoen aldetik ukatuak izan direla sentitu du hainbat pertsona migratzailek, horrek etsipenera eraman dituelarik. Askoren ahotan honako hitzak entzun ahal direla aipatzen du elkarrizketatutako pertsona batek: “¿tú crees que me pueden dar un trabajo? En la vida me van a dar...’ [...] se ha creado como una inseguridad en cualquier persona que le hace pensar que no va a ser aceptado” (E-6).

Lan munduan murgiltzerik izan ez dutenak Diru Sarrerak Bermatzeko Errentatik bizi dira —batik bat magrebtarrak, diagnosi kuantitatiboan ere ikusi izan ahal den moduan—. Diru laguntza horrekin bizitzea nekeza izanik ere, gutxieneko bizitzako gastuei erantzun ahal diete, hala nola, etxebizitza baten alokairua, janaria, arropa, etab. Alabaina, prestazio hori jasotzeak dakartzan betebeharrak zorrotzak direla eta, hainbat familia egoera larrian aurkitzen direla nabarmentzen da elkarrizketatuen aldetik. Zentzu horretan Lanbideko profesionalekin sentsibilizazio lana egitea beharrezkotzat jo da.

Gero edozein akats gertatu, urtebeterako kendu eta hortik sortzen den larritasuna eta hortik sortzen den ezintasuna latza da. Hemen orain gertatzen ari da, ematen du Lanbidek, ezer gehiago ez, baina tokatzen dana eskatzen ari da zehatz mehatz zuhurtasunarekin. [...]

Lanbidek bidaltzen dizkizun orriak nahiz eta euskeraz eta gazteleraz egon, nik neuk ere ez ditut ulertzen, dira oso zailak, da hizkuntza berezi bat e... [...] Orduan haiek nundik ulertuko dute eta gure laguntzarekin ere nekez, nekez eta orduan erreza da hanka sartze bat egitea handik hilabete batera edo hiru hilabetetara edo urtebetara (E-4).

Nere ustez hor zeozer ein behar da Lanbideko langileekin, formakuntza Lanbideko langileekin, RGI-ko perzeptoreak direzenak dauzken zailtasun guztiak, dauzken... Lanbidek daukan erreztasuna suspenditzeko edo estingitzeko laguntzak, exigentzia maila bat nere ustez ez dala, ezin jatzola exigidu pertsona normal bateri, o sea, hor nik ikusten dot lan pilo bat eitzeko. [...] Ba hasteko, langile guztiak formakuntza jasotzeko aniztasunean, o sea, eurak jakitzeko zelan... o sea, askotan Lanbideko langileak tratatzen dabe benetan gaizki erabilzaileak. [...] Langile publikoak han darella holako kontaktuan poblazino etorkinekin, hor zentzu horretan pixka bat sentsibilizauta egon behar diraz, formakuntza bat euki behar dabe, ze sortzen dire egoera batzuk benetan desastre bat direla. Eta gero, mekanismoak azaltzeko, zeintzuk diran beren... azkenian, ardurak RGI-n prezeptore moduan eta gauzak argixau egotia. Ze benetan pentsatzen dot, kriston lioak generatzen direla (E-2).

Apurka diru prestazioen menpeko bilakatu diren pertsona hauentzako lan aukerak sortzeko ahalegina egitea beharrezkoa dela aipatzen da, bestela kronifikatu egingo da euren egoera.

Sortu behar ditugu denon artean geroan, lan munduan, kokatuko duten bideak, bestela hortxe geratuko dira modu eskasean zeren azkenean mila eurokin bizi zea baina justu-justu, ez zera gosez hiltzen baina zure, zure etorkizuneko ba esparruak oso-oso motzak dira (E-4).

Paradogikoki aurreko aurreiritzi eta zailtasunen paraleloan nagusitzen den beste aurreiritzi bat nolabait beste muturrean kokatuko litzateke: atzerritarrek bertakoei enpleguak kentzen dizkietela azpimarratzen da. Aurreiritzi hori batik bat 2008ko krisi ekonomikoaren ostean nabarmentzen da, lehen edonorentzako lana bazegoen krisiak enplegu ugari suntsitu eta harrezkero denontzako iristen ez delako. Halako egoeran, bertakoek atzerritarrak mehatxu gisa ikusten dituzte eta bizikidetzatza giroa kaltetua suertatzen da.

Se habla de todos los inmigrantes. Porque nos quitan el trabajo, por no sé qué y por no sé cuál. Igual antes no se decía eso porque la tarta se repartía entre todos y cada uno se llevaba su cacho que le correspondía. Pero ahora nos peleamos por un cacho, y a ver si nos toca. [...] Antes de la crisis había trabajo para los de aquí, que eran los mejores trabajos, y todo lo que no servía había para los demás. Pero ahora, después de la crisis, hasta lo que antes no se quería es para nosotros (E-6).

Gaur egun, etorkin ugari zaintza esparruan edo ostalaritzan lanean daudela komentatzen dute elkarrizketatuek, nahiz eta askotan “hori dena tranpetan” egiten den, “era legal-legal” batean egitea zaila izanik (E-4). Gainera, azken urteetan araudia estutu egin da, zaintza lanak egiteko ere gutxieneko ikasketak eskatzen direlarik, esaterako. Horrek are zailagoa bihurtzen du era legal baten lan egitea.

Enplegu kualifikatuagoetara sarbidea izateko zailtasunak dituzte, izan ere, hainbatek euren herrialdeetan burututako ikasketak badituzte ere, hemen horiek onartzeko homologazio prozesu luzeak jarraitu behar dituzte. Dena den saiatu egiten dira: “Badakit asko e e saiatzen direla ikasketak homologatzen, ikasketak amaitzen, egiten dituztela kurtsuak... hau da, dira pertsona batzuk osea saiatzen direla” (E-5).

Y es frustrante para nosotras, que no les podemos ayudar porque muchas veces vienen adonde nosotras diciéndonos todo lo que tienen, o sea, yo qué sé, un odontólogo. Y te está diciendo que se ha apuntado a un curso de electricidad, cuando dices: “¡Por favor! o sea, ¿de verdad?” Pero es que yo creo que desde la base hay muchas cosas que no están hechas... (ET).

Jatorrien arabera desberdintasunak daude laneratzeari dagokionean. Latinoamerikarrak nahiko azkar laneratu ohi dira, eta jatorri honetakoak dira gehien bat aipaturiko zaintza edo ostalaritza esparruetan dabiltzanak; gaztelararen ezagutzak badu horretan eraginik. Pakistandarrek ere jarrera aktiboa erakutsi izan dutela aipatzen da, marrokiarrei aldiz kostatzen zaie, batik bat gizonezko asko “ajolagabeak” direla aipatzen da, emakumeak ostera “beti sufritzeko prest eta jarrera ateratzeko prest” (E-4) daudela.

Klaro, beraiek (latinoamerikarrek) daukaten zera bada gaztelera menperatzen dutela eta ia beraientzat hori ez da handycap bat, eta orduan berehala hasten dira ba bueno lana topatzeko badakite eskatzen dituztela ez dakit zer ikasketa konkretu. Beraiek hizkuntzaren arazoa ez dute. Euskararena baizik baina gaztelararena ez. Orduan asko sartzen dira kurtsuak egitera, formatzera, lana topatzeko (E-5).

Hortan adibidez pakistandarrek ia denak etorri dira ofizio batekin elektrizistak ez badira igeltseroak, igeltseroa ez bada ez dakit zer edo eta nekazaria izan baldin bada horiek ere baserrietara joan dira hemendo ikuiluak garbitzera eta abar eta abar... [...] Beraien jarrera oso aldekoa izan da eta... eta ez dakit, berriro diot, nahiz eta abereak zaintzeko ere, zekienak hori martxan jarri du eta marrokiar batengana zoaz eta zuk zer egin dezuz? [...] Badago multzo handi bat pf... hortxe geldirik (E-4).

Osasuna: gehienetan bermatua

Oro har, ez da arazo gehiegi nabarmentzen den esparrua osasunarena. Dena den, badago kobertura aldetik arazo bat. Atzerritarrek lan merkatuan lanean ari badira Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutenez osasun zerbitzuak eskuratuko dituzte. Enplegurik ez badute errolda eskakizunak jartzen ditu Osakidetza osasun-laguntza eskuratu ahal izateko. Errolda urte bat baino gehiagokoa bada osasun-laguntza osoa izango dute, beti ere 18 urtetik beherakoak badira. Urte bat baino gutxiagokoa bada larrialdietako osasun-laguntza jaso ahal izango dute. Hiru hilabetera iristen ez direnak berriz, zerbitzu horretatik kanpo geratuko dira. Eta azkenaldian gero eta gehiago gertatzen ari den errealitatea dela aipatzen da: “Ezin ditugu enpadronatu,

horrek esan nahi du ez daukatela eskubiderik osasunerako, hemen bere medikua edukitzeko” (E-3).

Ailegatzen jataz kontsultak. Zer ein behar daben eukitzeko osasun asistentzia eta bueno, alde hortatik, nik behintzat ez dot perzibitzen hainbeste arazo. Dago arazo bat dala, zu sartzen zara programa integralean, egoten bazaz paper barik hiru hilabeteko padroiakin, juaten zara anbulatoriora eta ematen dotzue osasun integrala, bai? Baina zuk nahiz eta paperak euki, ez bazare lanian edo paperak dituzu eta zara espainol baten familiarra, baina izaten bazaz gurasoa edo seme-alaba 25 urtetik gora, hortik kanpo gelditzen zara. Ez zare Seguridade Sozialian eta ez zara sartzen bez Osakidetzak ematen daben kobertura horretan. Eta hor dare pertsona batzuk kanpo gelditzen diranak. Hor arazo bat dago, adibidez (E-2).

Elkarrizketatuen arabera atzerritarrek asko eskertzen duten aspektua da osasun sistematik jasotako arreta; askotan, arreta hori jasotzea, hemen betirako geratzeko arrazoia izan dela aipatzen da.

Beraiek hori asko-asko estimatzen dutela, arrazoi bat hemen gelditzekoa, nik uste hori dala, osasun mailan nola atendituak diren. Datozte herri batzuetatik nun eta aurretik ez baduzu ordaintzen eta dirutza ez baduzu ordaintzen ez daukazu inungo atentziorik (E-4).

Dena den, eta zerbait orokortua ez bada ere, hainbatetan herritarren aldetik atzerritarrek egiten duten osasun zerbitzuen gehiegizko erabilera salatzen da. Zentzu horretan, osasun sistemaren inguruko informazioa eman behar zaiela azpimarratzen da, osasun zerbitzuen erabilera okerra edo gehiegizkoa egin ez dezaten. Jatorrien arabera ere desberdintasunak ohartarazten dira, hizkuntza dela tarteko, ez da berdina latinoamerikar batentzat osasun sistemak nola funtzionatzen duen ulertzea edo hemengo hizkuntza ofizialik hitz egiten ez duten atzerritarrentzat.

Vienen con ese concepto. Que vienen a un país desarrollado y les van a hacer todo. Tienen una herida pequeña y van corriendo al médico. Pero los de aquí no entienden eso. Entonces, les frustra [...] Pero que también los de aquí entiendan que no es que vayan a molestar sino que piensan que es lo mejor que pueden hacer (E-6).

Nik uste, bueno, nik ikusi dudana ezagututa da, ez dutela ulertzen nola funtzionatzen duen. Ez dute desberdintzen, a ver azkenean ere bai, a ver... dago denetatik, ez? Eta Kolonbia batetik, Peru batetik datorrenak ba... Hizkuntzagatik, funtzionamendua ere bai, ba han urgencias también son urgencias, baina datorrena de una población del Congo, ez duela ikusi horrelako ospitale bat bizitzan, ulertzea nola funtzionatzen duen, esplicitatzea benetan zein den urgentzia bat eta... jo, ba nik ulertzen dot zaila egiten zaiela eta batzuetan erabilera txarra egiten dutela (E-3).

Osakidetza eta osasun zerbitzuetatik aparte, baina osasun esparruari lotuta, hainbat elkarrizketatuk etorkinekin landu beharrekoak liratekeen zenbait alderdi hautematen dituzte: elikadura ohiturak, gehienetan gaizki elikatu ohi direla aipatzen da:

Igual kobratzen dute, ez? Eta erosten dute, ba igual no alimentos sanos de cocinar eta hori, ez? Igual bollerías, no sé cuál... Es que ez dotze emoten garrantzia handirik horrerri. [...] Ez dute igual hainbeste kontuan hartzen, ez? Ta nik uste dot garrantzitsua dala be hori lantzia (E-1).

Azalaren zainketari ere ez diote garrantziarik ematen, azalez beltzaranagoak direlako eguzkiak kalterik ez diela egiten uste dute: “krema emotiana, eguzkiarekin. Behin esan zoztan niri batek: ‘Pero si yo ya soy morena. Yo ya no me quemo’ ta esan notzan: Hombre...”(E-1). Hilerokoaren gaia ere landu beharrekotzat jotzen da, izan ere oraindik gai tabu gisa ageri da emakume atzerritar askoren artean, eta naturalizatu beharra ikusten da.

Neska gaztiak, ba reglie eta etorten jakena eta zela lantzen duten... nada (xuxurlatuta). Tema tabú. Eta ein gauen eurekin, bueno, hitzalditxo txikitxo bat, holan petit comité eurekin, horren inguruan, por sacar el tema, porque es que no sacaban el tema. Eta bueno, bai ondo egon zan (E-1).

Kirol ohiturak ere landu beharreko gaitzat jotzen dira, batik bat emakumeen kasuan. Orokorrean ez dute kirol ohiturarik erakusten baina hori are nabarmenagoa da emakumeengan. Tentuz landu beharreko gaia da, emakume musulmandarren kasuan esaterako janzkera zailtasun gisa agertzen da, baina hori esplizituki esatea kirola praktikatzen jarraitzeko oztopo bilakatu daiteke.

Kirola, bai ze... ez daue kirola egiten. Bueno, hemen dago, adibidez, pakistandarrak, gizonetzkoak. Danak gizonetzkoak klaro, cricket-era jolasten dutela, ez? Baina, emakumeak... ba kirol teknikariak baten esan zoztan, batzuetan joaten direla kiroldegira eta euki zabiela, como holan un poco, ez zakixiela zelan aktuau ze neska gazte batzuk, ba igual hasi zirela la cinta, ba korrika eitzeko zinta hauetan, euren arropakin eta esan zotzien: “Igual kendu zerbait, porque sartu ahal da makinatik” eta ez zan gehixau etorri neskia. Eta orduan klaro, honek esaten zaben: “Jo, es que ez dakigu zelan...” (E-1).



4

Gizarteratze prozesuan eragina duten zeharkako aldagaiak

Hizkuntza: euskararen auzia

Oro har, atzerritarrek hizkuntza autoktonoa —euskeraz— ikastearen garrantzia barneratua dutela aipatzen da elkarrizketatuen aldetik. Alabaina, garrantzia horren fokoa hurrengan, seme-alabengan jartzen da; helduek ez dute behar hori sentitzen edo hizkuntza berri bat ikasten jartzekotan gaztelera baliagarriagoa zaiela sentitzen dute, besteak beste euren egoera erregularizatzeko administratiboki jarraitu beharreko prozeduretarako hizkuntza hori eskatzen zaielako edo euskara baino zabalpen handiagoa duelako. Elkarrizketatu gehienek berresten duten errealitate hori.

Denek onartu dute ba adibidez eskolan, umiak, euskera ikasi behar dutela eta abar eta abar nahiz eta kostau. [...] Orokorrean danak onartzen dute umiak euskara ikasi behar dutela eta harrotasun puntu batean: “nere umeak ikasi du, ari da”, baina beraientzako beraientzako ez dute hain ondo onartzen euskarazko zerbitzuak [...] Orokorrean zama bat bezala sentitzen dute hizkuntza. [...] Hizkuntzarekiko holako zaletasunik ez dugu piztu haiengan, baina umiak ari dira euskalduntzen eta batzuk oso-oso-oso ondo (E-4).

Bai, a ver beraiek ulertzen dute, e? Hasieran les choca baina gero konturatzen dira Arrasatek adibidez badaukela e... euskararekiko begirune berezi bat. Arrasatek lortu du urteekin y con mucho sufrimiento y con mucho sudor, mucho mucho trabajo, berreskuratzea euskara eta kalera ateratzea. Eta orduan kontziente dira guretzako euskara altxor bat dala eta gure aberastasun bat dala eta ulertzen dute. Baina guk ere ulertzen dugu, beraiei zer exigitzen dieten eta beraiei ez diete exigitzen euskara, exigitzen diete gaztelera eta segun eta ze papel eta ze tramite behar dituzten gaztelera menperatu behar dute (E-5).

Gustatuko litzaidake denak euskaltegira joan eta euskaraz ikastea, pentsatzen dudalako bueno, euskara niretzat da gure hizkuntza, da gure identitatearen parte eta kulturaren parte. Eta nik ez dut Euskal Herria euskara gabe ulertzen. Baina langile bezala, ikusi dut pertsona bat datorrela araberekin bakarrik ezin diozu exigitu euskara eta gaztelera ikastea. Eta errealistak izanda, gaztelerrari garrantzi gehiago ematen zaio, ba Lanbideko kurtsu asko gazteleraz direlako eta igual biharko egunean Euskal Herriatik kanpo irten behar direlako eta Euskal Herriatik kanpo gaztelera gabe... (E-3).

Nik bebai ulertzen dot. Zu zatoz Pakistanetik edo zatoz Marruecosetik. Lehehengo gaztelera ikasi behar dozu, ze hori da benetan balio dotzuna lana topatzeko... bueno, depende, ze lan, baina klaro, zuk euskera bakarrik jakinda, hombre, hemen gelditzen bazaz bai, baina gehixenak ez daki... Zuk ez dakizu hemen gelditzera zoiazan, hemen ondo juango jatzun gauzak, hemendik lau hilabetetara juan bihar zaren Salamancara, es que... o sea, bai da, argi dago garrantzitsua dala euskera ikastia, hemen integratzeko eta hori dana, baina zuk lehenengo dituzu bihar batzuk, dala zu eta zure familian biher basikoak asetzia eta etxe bat eukitzia eta jatekoa eukitzia eta lana eukitzia eta pfff... (E-2).

Nahiz eta gaurko belaunaldiek gaztelera lehenetsi, ez da arazorik aurreikusten etorkizunera begira, esperantza *bigarren belaunaldietan* jartzen da eta horiek prozesu egokiak jarraitzen ari direla uste da, jada hezkuntzaren esparruan ere ikusi den moduan. Lehen belaunaldia, bai izango litzatekeela *belaunaldi galdua* hizkuntzari, edo zehatzago euskarari dagokionean.

Elkarrizketatu batzuk aipatzen dutenez, nahiz eta gehienetan euskarak Arrasateko herriarentzat duen garrantziaz jabetzen diren, ez dira iristen hori benetan eta euren azaletan sentitzera, eta hori lantzea beharrezkoa dela jotzen da. Izan ere, euren esfortzua ez da etorriko arik eta herriarentzat hizkuntzak benetan duen garrantzia ulertzen duten arte. Beste informatzaile batzuk diotenez horretan ez du gehiegi laguntzen Arrasateko herritarrek eurek ere gaztelera aritzeko agertzen duten joerak, nahiz eta hori ere poliki poliki aldatuz doan eta euskara indartuz. Eztabaida taldean berriz harridura agertzen da udalak ez dituelako euskarako klaseak %100ean ordaintzen, eta hori galdegiten da.

Haiek ez dute ulertzen aitzitik burruka egin zuela gerran eta ez dakit zer eta dana dalakoa eta... gure hemengo historia, basajaun egon bazan edota... edota jauntxo gerra jun zala... Atualpa edota El Indio Lempira askoz gehio sentitzen dute gure hori baino eta ordun sentidu horretan sustrairik gabeko, hemengo sustrairik gabeko jendeak dira eta... eta... zertarako egin behar nik halako esfortzua, ez dakit, hizkuntza bat ikasten, hemengo kultura ezagutzen eta... (E-4).

Marokoarren eta pakistandarren eta... hor e... eta latino... latinoamerikarrekin adibidez asko entzuten ari gare, ba adibidez hizkuntzarekiko duten gure euskararekiko duten e... ez dakit nola esan interes eza. Eta nik esaten dotziet, baina ze interes eukiko daue? Es que gaztelera egiten dau hemen kristo guztiak! (E-5).

A mí me sorprendió venir a Arrasate y enterarme de que el ayuntamiento no subvenciona al 100% las clases de euskera, [...] si de verdad nos sentimos tan necesitados, ¿dónde está ese amparo institucional? (ET).

Jatorrien artean bereizi ezkerko zailtasun nabariak magrebtarren aurkitzen dira: “magrebiarrak eta horiek, ez euskara, ez gaztelera” (E-4). Eta magrebtarren artean emakumeak ageri dira arazo gehien pairatzen duten kolektibo gisa. Hizkuntza ikastearena batzuetan derrigortasun gisa bizi dute, ez behar gisa —batik bat helduenek— eta gainera klasera gizonekin batera joan beharra arazo suertatzen zaie.

Mujeres mayores, que les obligan a ir a la EPA por la RGI o por las ayudas del ayuntamiento, pues como que tienen que asistir obligatoriamente. Y claro. ¡Una clase de hombres! Y que se sienten fatal (E-1).

Komunikaziorako eta elkarrekintzarako beharrezko tresna da ordea hizkuntzarena, elkarrizketatuen iritziz. Dena den, zalantza sortzen da ea beraiek hemengo hizkuntza ikastea soilik bilatu behar den edo harrera gizartearen erantzukizuna ere baden euren hizkuntzara hurbiltzea.

Hizkuntzarena, komunikatzeko, o sea, azkenean gure bizitza komunikazioa da. [...] Askotan ikusten dogu hemen ospitalean uno traduciéndole al médico y la otra... o sea, pff... Djamila juaten da askotan eurekin, porque ez dute ulertzen. [...] Dau jendia daroiena bost-sei urte eta tutik bez gaztelararena, e? Baina zero-zero. Zuk bezta ezin dotzazu esan pertsona bateri: “Ikasi al dozu gure hizkuntza?”. [...] Igual guk be al dogu arabea ikasi, bebai. Que no te digo que no (E-1).

Errealitate honen parean guztiz desberdina den emakume latinoamerikarrena ageri zaigu. Hauek gaztelarekin datoz eta horrek gauza asko errazten dizkie. Besteak beste, segituan bilatzen dute zaintza munduan enplegua. Emakume magrebtarrek hizkuntza menperatuko balute lan merkatuak sarbidea askoz ere errazago izango luketela ustea da, eta eurei mezu hori helaraztea garrantzitsutzat jotzen da. Hizkuntzaren garrantziaz jabetuko balira agian gogoz hartuko lukete bere ikaskuntza, eta ez derrigortasun gisa. Dena den, bi kasuetan gaztelarari ematen zaio lehentasuna.

Hamen Arrasaten argi geratzen da, latinoamerikatik datozenak, lehenengo emakumeak datoz normalean, lana topatzen dutelako errazago. Gero igual gizonezkoak, bai? Orduan, o sea, heldu eta normalean azkar topatzen dute lana eta hitz egiteko zailtasunik ez daukielako izaten da. Klaro, Magrebetik datorren emakume bat que no entiende nada castellano, nada de nada, de nada, ba igual jende nagusia zaintzeko eta hola, pues igual ez dotze lehenago hartzen, nahiago dute hizkuntza dakiena. Horregatik lan munduratzeko horretan, pisua eman behar jako hizkuntzari eta garrantzia emon behar jako ulertzen? O sea, igual alde horretatik motibau, ez? Ikastera hizkuntza. Motibau, ez behartu. Motibau (E-1).

Yo estoy con la lucha de tu identidad. Y el euskera es parte de la identidad de un pueblo. Un pueblo que ha luchado siempre y al que se le reconoce su lucha. Pero tampoco me gusta que se ponga como obstáculo para el avance de otras personas que, aunque lo apoyen, no

pueden saber el idioma. Y me refiero sobre todo al tema del empleo. Exigir tener un nivel de euskera no hace nada más que... no cautivas a más gente. Y creo que el País Vasco lo que quiere es tener a más gente a su favor y apoyándole en su lucha. Además, últimamente hasta para los trabajos de peón se requiere esto (E-6).

Gaztelerak enpleguaritzen laguntzen die emakume latinoamerikarrei, eta horrek familia euskaldunekin harremanak izatea ahalbidetzen die, harreman horiei esker euskarara hurbiltzen direlarik, espresio laburrak ikasten badituzte ere. Hasiera batean gaztelerarekin eroso sentitzen badira ere, hainbatetan denborarekin euskeraren beharraz jabetu eta hori ikasteko ahalegina egiten dute.

Gero andra batzuk nola euskaldun familietara jun diran lanetara bueno poliki-poliki hasten dira berba batzuk hitz egiten eta abar eta abar eta bueno gehio sentitzen dute (euskararen beharra edo garrantzia) (E-4).

Gaztelerarekin datozenei bultzatzen diet udaletxera... o sea, euskaltegira joaten. Eta batzuk erabakitzen dute baietz, beste batzuk esaten dute ez zaiela garrantzitsua pentsatzen entzundako komentarioengatik eta abar eta gero jartzen dira lana bilatzen eta esaten dute: "jo, ba igual... leku askotan, gehienbat pertsonekin lanean zaudenean eskatzen da", bai (E-3).

Arrasateko herrira azken urteetan nazioarteko fluxuen baitan etorritako atzerritarrak, bere momentuan Espainiako lekuetatik industrian enplegu bat toptzeko asmoz etorri zirenekin alderatzen baditugu, hizkuntzaren arloan badagoela alderik azpimarratzen da: bigarren hauek euskal hizkuntzarekiko errespetu gehiago erakusten zuten lehendabizikoek erakusten dutea baino.

Espainiatik lehen immigrazioa izan zenean, nik ez dakit ba, iskanbilak nabarmenago zeudelako edo, nahiz eta gustoko ez, beti onartu zuten hemen euskara egin behar zala. [...] Beti onartu zan ikastolak egon behar zirela, euskaltegik egon behar zirela... beraiek ere askok eta askok sekulako ardura hartu dute euskalduntzen. Hauek (oraingo etorkinek) hizkuntzarekiko eta euskaltasunarekiko errespetu hori ez daukate, ez daukate barneratuta, ez gaiztoak direlako, e? baizik eta [...] beraiek sentitzen dute horrelako nazio txiki bat dala munduan eta gu Espainiako zati bat eta kitto, orduan alderdi hortatik hizkuntzarekiko zaletasuna eta... eta ahalegina egin behar dela eta behar degula e... gutxienez elebidun izango den gizartea, ez daukate batere barneratuta. Sentido horretan ikusten det gatazka txikitxo batzuk egon ahal direla eta geroan segun orekak edo ekilibriok zelan geratzen diran, ba, nork daki? (E-4).

Bertako biztanleek jarrera gogorra erakusten dute atzerritarren ezezagutza horren aurrean. Hainbatetan bertako hizkuntza ofizialetan komunikatzeko ahalegina eginda ere, autoktonoen aldetik ukapena jaso izan dutela aipatzen da.

Eta hizkuntzaren aldetik, ba batzutan... Bai toka jate denda baten, ez? saiatzen dabilela gazteleraz eskatzeko gauza bat: "Es que no me entiende, es que esta no me entiende. Es que no sé qué..." O sea, horrelako jarrerak esaten duzula: "Jo, ba, está intentando explicarte, pues saiatu zu ere laguntzen hortan, ez?" (E-1).

Errealitate horri aurre egin nahian, atzerritarrak euskerara gerturatzeko hainbat ekimen egiten da Arrasateko herrian. Esaterako Ekin elkarteak Auzoko programa du martxan, jolasaz baliatuz, euskarara hurbildu nahi duten Auzokideak, eta euskaraz bizi diren Auzotarrak, modu ludikoan elkarrekintzan jartzen dira, programa horren bidez “batzuk euskarari beldurra kentzen diote eta ia hartzen dute holako maila minimo bat eta hurrengo urtean ia Euskaltegira salto egiten dute” (E-5). Halako espazio gehiago behar direla uste da, euskarara lasaitasunez eta derrigortasunik gabe gerturatzeko.

Baina nik uste dut espazio gehiago behar direla, espazio gehiago eta gainera ez irakasle bat eta, nik uste dut izan behar direla Auzokok daukan filosofia horretatik, hau da, jatorri euskalduna dutenak eta atzerriko jatorria dutenak elkartzea eta euskararen baitan elkar ezagutzea eta partekatzea, modu naturalago bat sortzeko (E-5).

Generoa: emakumeen zaurgarritasun bikoitza

Oro har atzerritarren errealitatea hainbat esparrutan zaila dela ikusi bada txostenean zehar, emakume etorkinengan zaurgarritasun hori biderkatu egiten da. Elkarrizketatu batek dioenez ez da atzerritarren artean soilik aurkezten den errealitate bat, historikoki eta oraindik ere, kultura guztietan, emakumea ez da guztiz ahaldunduta egotera iritsi. Aipatzen denez, emakume atzerritarren artean magrebtarrak liriateke egoera latzenetan aurkitzen direnak.

Son las personas más discriminadas. Tanto las mujeres de aquí como las de fuera. Todavía el concepto antiguo de “mujer” sigue estando ahí por mucho que hablemos del feminismo y de no sé qué. No hemos conseguido un concepto verdadero de una mujer verdaderamente empoderada. A ver, para mí empoderada no es que tenga estudios o que trabaje, no. Empoderada es una mujer que puede decidir ella por sí misma, no la sociedad (E-6).

Jo, ba pfff... Dare emakume pilo bat oso egoera precariotan. Bai, magrebiarrak asko. Emakumiak bakarrik igual umiekin, RGI prezeptoriak, ba berdina: Mozten dotzue laguntzia, ez daukazu ezebez, paper barik, ume txikixekin lana ezin dozu ein, ze o sea... bai, oso oso egoera precariotan. Emakume asko (E-2).

Dena den, Arrasateko herritik nahikoa ekintza egiten dira errealitate hori lagundu asmoz. Udalak emakumeen txokoa du martxan, Emakume Saightik bideratua; horrez gain, bi elkarte daude herrian emakume etorkinen errealitateak lantzen dituztenak, Ekin Emakumeak –emakumeen jabeakuntzan euskaraz eragiteko asmoa duen elkarte— eta IMME —Euskadiko Emakume Migratzaileen Integrazioaren alde lan egiten duen elkarte bat, emakume migratzaile musulmandar baten eskutik sortua eta emakumeen ahaldundutza bilatzen duena—. Emakumeek halako espazioak izatea eskertzen dutela aipatzen da.

Partekatzen dugu filosofia hori nolabait espazioak zabaltzea, eta batez ere emakumeei, espazioak zabaltzea non beraiek ere protagonista dira eta beraien ahotsa dute eta beraiek erabakitzen dute [...] Emakume batzuk eskertzen zuten beraiek eukitzea espazio hori, ez? Sentitzen zirelako ez zutela espazio bat non emakumea izan eta eskubide guztiekin, ez? De que puedo hablar y nadie me va a decir... No no, dices lo que quieras (E-5).

Nolanahi ere, batzuetan horietatik bultzatzen diren ekimenak anbizioak edo emakume atzerritarren errealitateetara ondo egokitzen ez direnak izan ohi direla aipatzen du elkarrizketatu batek, horrek emakume etorkinek benetako interesa izatea eragozten duelarik.

Nik beti dauket hori buruan. Ezin dogula ikusi gure begietatik. Es que ez da errealitate iguala. Ez ditugu gauza berdinak bizi, ez gara modu berdinean hezi. Orduan, ikuspuntuak aldatu behar ditugu eta ikuspuntuak zabaldu, nik uste dut: Ekintzak planteatzeko orduan, gauzak egiterako orduan,... zabaldu behar dogu gure... ze ezin gare mugatu gauza batera. O sea, daz mila pentsamendu mota, mila izaera mota, ez dakit. [...] Ba igual pixka bat jarri eta eseri eta landu eurekin: “Zer landu al dogu zuekin?”. Eureri galdetu. Ez dakit (E-1).

Lan munduan zailtasunak nabarmentzen dira. Edonola ere, jatorrien arabera desberdintasunak ageri dira. Jadanik beste atal batzuetan ikusi den moduan latinoamerikarrek zentzuz horretan abantaila izango lukete. Alde batetik hizkuntzagatik, gaztelarekin datozelako, Arrasaten hitz egiten diren bi hizkuntzetariko bat. Zaintza edo garbiketa lanetarako persona bat kontratatu nahi denean eskertu egiten da elkar ulertu ahal izatea. Bestalde, kulturalki ere gertuagokoak dira erlijioa eta beste zenbait ohitura partekatzen dituztelarik harrera gizartearekin. Emakume musulmandarrek bestelako egoera bizi dutela nabarmentzen da elkarrizketatuen hitzetan, hizkuntza ez jakitea eta batik bat janzkera desberdinak erabiltzea —hiyab, chador, niqab edota burka— itzeleko oztopo bilakatzen dira.

Janzkera berak eta abar jendiak bere etxean onartzeko ez da hain erraza eta... eta bueno beraiekin lan eginda apur bat... zuk zapia kentzen duzu baina beste txapela mota jartzen duzu etxean edo ez dakit zer... bai? Lagundu nahian, baina hor bai mina hartzen dute, hori aipatzen danean beraien kulturaren kontrako zerbait sentitzen dute eta, baita ere, baita ere, ba hori, ez ditugula onartzen pertsona horiek. Eta egia da, ze maila batean... baina klaro etxe barruko lanak diranian hori ez da oferta publiko bat, [...] eta hor lan asko egin behar da eta bereziki bazterrean gelditzen ari da musulmandarren andreen kolektibo hori (E-4).

Zaila da mundu guztiantzat, e? Hona etortzea bizitzera. Ez da, inobeze ez dauka erreza, baina azkenian latinoamerikarrek ez dauke hain salto kultural haundia. Ez dakit. Eta gero, ez dago hainbeste arrazismoa jasotzen dabe eta xenofobia, baina gutxiau. Etxietan errezaua da lana topatzia. O sea, hemengo familixa batek lehenago kontratatuko dau emakume, Honduraseko emakume bat bere gurasoak zaintzeko, Pakistaneko emakume bat baino, edo Marruecoseko emakume bat baino. [...] Bai, o sea, ez da perzibitzen hain desberdina moduan. Bai perzibitzen da desberdina moduan, baina ez hainbeste. Eta Pakistandarrak eta pfff... Gero ba, jendiak ja beloakin doiezenak eta, ja zaila kontratatzeke... (E-2).

Cuando se habla de las de América Latina se dice que son más trabajadoras y que se integran más. ¿Por qué? Por cercanía de idioma, cercanía de religión y por otras cosas [...] por ejemplo el trabajo de mujeres (musulmandarrak). Por el velo y todo eso. A ver, en el tema del velo, de vestirse y eso, yo defiendo mucho las libertades de actuación de la gente. Porque es mi libertad mientras no te ofendo ni toco tus libertades. Para mí, es una libertad personal el ponerme así o así. Ponérmelo o no ponérmelo es mi libertad personal. Y el otro lado no entiende esto para nada. Y esto en mi opinión también puede crear un conflicto. Porque ya me están dando el concepto de que yo no valgo para nada y no estoy trabajando el empoderamiento. Por ejemplo, van a entrevistarlas en trabajos de Emaús o en trabajos en la exclusión social y no cogen a ninguna para trabajar (E-6).

Lan egiteko erakusten duten jarreran ere badago desberdintasunik. Emakume magrebtarrek hainbatetan ez dutela lanik egin nahi adierazi izan dute, izan ere, barneratuta duten balioa da emakumea etxeaz arduratzen dela eta gizona dela lanera ateratzen dena. Kasu horretan zaila da emakume horien ikuspuntua aldatzea, ezin dira derrigortu nahi ez duten zerbait egitera. Latinoamerikarren jarrera bestelakoa da, eta normalki lan egiteko prest eta gogoz ageri dira.

Emakume Magrebiar askok ez dute beharrezkoa ikusten eurakjuatea lan egitera eurak etxean eta igual familia... eurek kulturalki jaso dutelako horrela, familia eta etxea zaintzearena eta igual emakume latinoamerikarrak, ba die askoz be, ba hori, eurak emoten dute lehenengo pausoa, ez? Eta noski, es que noski... nik uste dot lanak askoz... inklusioa zabaltzen dabela pila bat, lanak, ez? Baina ez etorkinena... Denona! (E-1).

Zenbait kasutan, dena den, emakume magrebtarrak lan egiteko –edo gutxienik formakuntza bat jasotzeko- prest agertu izan dira, baina kasu horretan emakume hauekin suertatzen den beste arazo bat da herrian dauden lan eskaintzek ez dutela euren perfilarekin bat egiten: “Últimamente, por ejemplo, nos vienen un montón de mujeres que tienen cartas para apuntarse a un curso de mecánica” (ET).

Aipatu bezala emakume latinoamerikarrak gehienetan azkar enpleguratzen dira, eta zentzu horretan egoera –ekonomiko- hobean aurkitzen badira ere, aztertzekoa da zein lan baldintza dituzten. Gehienetan ordu pilo bat lanean pasatzen dute eta lan kontratu formalik ez dute.

Emakumeak (latinoamerikarrak) egia da asko eta asko lanian daudela asko eta asko halamoduz que tambien hay que decir. Ze oso erraza da esatea, bai bai lanien dauz ia ia baina nik ezagutu ditut kasu asko de explotacion e? [...] Emakume batzuk no tienen ni vida, ni vida. Guk ezagutzen ditugu batzuk gure izan dabiela gurekin gauzak egin eta es que es que... es que ezin dute, ezin dute porque estan atadas de pies y manos de una manera que no es ni normal... (E-5).

Yo hablo de un colectivo, que suelen ser las mujeres latinas, y en este caso, pues la mayoría nicaragüenses [...] Una de las problemáticas que yo manejo, pues porque me relaciono mucho con mujeres que trabajan en el área doméstica, del cuidado de ancianos, es que su realidad es... [...] Estamos creando una especie de esclavitud que no estaba... [...] Muchas de

las realidades son mujeres que trabajan o que están internas durante toda la semana y que tienen una hora libre o dos y que no tienen vida social (ET).

Emakume latinoamerikarrak lan jardunaldi luzeak dituztelako eta beste jatorri batzuetakoak etxea eta seme-alaben zaintzari lotuta bizi direlako, orokorrean emakumeen ez dute denborarik aisialdirako, eta horrenbestez herrian antolatzen diren ekimenetan edo formakuntza kursoetan ikusgarritasun gutxi dute.

Ni asko larritzen nauena da batez be emakumeak ze adibidez badaude herrialde batzuetan batez ere lan eremutik datozenak, emakumeak ez dute ezta eskubiderik ikasteko Pakistanen, no? Eta... ba niri pena ematen dit baina ia ez hainbeste begiratuta familia ze normalean Pakistandarrak bai etortzen dira familia osoa... Pakistandarrak oso zera dira, egiten dituzte, montatzen dituzte beraien e... beraien enpresatxoak eta... badira baina emakumea dago nola esango nuke e... azkenean ez dauka eskubiderik. Mas que ser madre, cuidar de los niños, quedarse en su casa y poco mas y poco mas eta claro etorzen dira ikasketarik gabe eta klaro hastea irakurtzen, idazten, pf... niri pena ematen dit batez ere baina ia genero ikuspegitik, e... (E-5).

Igual ezin dituztela udaleku batzuk ordaindu eta uda guztian daude umeak etxean. Eta ba hor normalean gelditzen dena da ama. Eta utzi behar du bere bizitza, ba gure kasuan gaztelerako klaseetara joaten dira eta Lanbideko kursoak egiten dituztenak, ezin dira joan ez daukatelako zeinekin utzi umea (E-3).

Hay mucha gente, por desgracia, pues... O “tengo niños”... Ahí tenemos otro problema. “Tengo niños. Yo no puedo hacer nada. No puedo ir a la EPA. No puedo ir tal”. ¿No? Tenemos otro problema. ¿Qué pasa con los niños? Los haurtzaindegis, ez dakit, ez? Por ejemplo, se me ocurre Clara Campoamor (proporcionan servicio de guardería gratuita), en Bilbao. Deben de tener algo, algún programa, pues que tiene niños pequeños, haz una solicitud, que les pueden ayudar... (ET).

Generoaren auzia beste aldetik ere agertzen da, hau da, emakume autoktonoen aldetik eta gizon atzerritar batzuegandik bizi ahal izan dituzte esperientziei lotuta. Profesional gisa eurekin lan egiterako orduan emakumeen aldetik datorkien autoritatea ezin dutela jasan aipatzen du elkarrizketatu batek. Halako kontuak ere landu beharrekoak lirateke.

Bueno, nik emakume izanda, zailtasunak eduki ditut gizon musulmanekin. Egon da denetatik ere bai, e? Baina gehienbat, gizon musulman ezkonduekin. [...] Azkenean guk daukagu rol bat, programaren barruan dena eta berdin zait emakume bat zein gizona izan. Nire rola da gizarte langilea eta nik eskatzen baldin badizut, ez hemen, sudur puntan jartzen zaidalako, si no behar dudalako paper bat ekartzea, ba... Eta ez dute ulertzen ba hori... ba... [Emakume batek] bai, eskaera bat edo agindu bat ematea. Bai, hori da, asko kostatzen zaie hori (E-3).



5

Migrazio mahaia: berraktibatzekeo beharra

Elkarrizketatu bat baino gehiagoren ahotan agertu izan da, baita burututako eztabaida taldean ere, herrian bizikidetzaz egoki bat izateko plan baten beharra, hori izendatzeko era desberdinak erabili badira ere.

Entonces, eso es lo que veo yo. Que tenemos que hacer un plan de trabajo, con un grupo promotor que pueda discutir eso y que pueda llegar a un acuerdo para un plan de trabajo que nos pueda servir. Porque por mucho que estemos haciendo, todavía no se ha conseguido... (E-6).

Zentzu horretan, plan hori martxan jartze aldera, migrazio mahaia berraktibatzearen beharra argia izan da, uneoro ebaluatzekeo burututako ekimenak, horien eraginkortasuna eta immigrazioari loturiko bestelako aspektuak. Migrazio mahai hori berez eratuta dago, baina une honetan ez duela gehiegi funtzionatzen aipatzen da, inplikazio handia eskatzen duelako, denbora asko inbertitzea, eta horretarako dituzten baliabideak eta baldintzak ez dira nahikoak.

Oso zaila mahai hori, ze da oso mahai handia. Igual hogeita hamar pertsona-edo. Lanbide, eskola, ez dakit zer. Orduan, klaro, gero gaude talde motor bat [...] egoten garenak ba ekintzak sortzen. Baina, klaro, talde hori dinamizatzea super zaila da (E-1).

Gaur egun soilik arazo bat dagoenean batzen dira eragileak eta modu eraginkorrean lan egiten dute. Baina ez dira jarraikortasunez batzen. Eta hori beharrezko ikusten da: “Muy importante. No es que sea interesante, es muy importante, es imprescindible” (E-6).

Sí, nos juntamos y casi siempre trabajamos... por eso te decía que tenemos una relación muy interpersonal. No es un trabajo muy formal. Pero es un grupo muy bonito. [...] Si hay algún problema podemos comentarlo entre todos y podemos intentar solucionarlo. [...] Solamente cuando hay algún acto o así. Por ejemplo, cuando necesitamos hacer un protocolo de convivencia. Porque todos trabajamos el tema, todos trabajamos la inmigración y la convivencia. Si tenemos que hacer algo para diseñar un programa a largo plazo con el que podamos trabajar todo el año (E-6).

Nik uste dut kostatu zitzaigun pilo bat martxan jartzea baina nik uste dut eraginkorra dala. Hau da, e... benetan serio hartzen baldin badugu, denok, hor parte hartzen dugun guztiok, hau da, benetan sentitzen badugu denok parte garela eta parte inportantea eta denak garela protagonista mahai horretan [...] Nik uste dot on haundixa egin ahal duela gainera ahalbidetu ahal dituelako ekintza asko, informazio partekatze hori, zabalkunderako [...] Egin beharko genuke nolabait denon artean berriro perfilatu aniztasun mahaia, ez? Helburua ipini, helburu espezifiko batzuk edo erronka txiki batzuk eta gero lantaldeak sortu behar dira (E-5).

Lo primero que pediría sería un técnico de inmigración. Sí, la pobre está a media jornada y no llega a todo. Claro, para que pueda cubrir todas las necesidades. Y que hagamos un grupo promotor. A mí esto es lo que me parece. Y diseñar un trabajo bien profesional para que se pueda trabajar. Porque si no, todos (E-6).



6

Ondorioak

- Burututako banakako elkarrizketek eta talde eztabaidak erakutsi dute, gaur egun Arrasaten immigrazio eta bizikidetzaren inguruan aurkitzen dugun **errealitatea lasaia** dela, nahiz eta oraindik badauden gauzak egiteko eta hobetzeko.
- Parte-hartze eta harremanei dagokionean **atzerritarrek herri ekimenetan oro har presentzia txikia** —edo gutxienik autoktonoena baino txikiagoa— erakusten dutela ikusi da, eta **autoktono eta atzerritarren arteko harreman gutxi** —edo batere ez— ematen dela. Parte-hartze eta harreman gabezia hori bi parteen aldetiko aurreiritzi ezkorren sorburu da hainbat kasutan, eta horrenbestez harremanak sustatzeko beharra azpimarratzen da, horretarako hainbat proposamen agertzen direlarik:
 - **Harremanetarako espazioak** egotearen garrantzia agertzen da, Arrasaten jadanik egiten diren ekintzak mantenduz eta indartuz: Munduko Arrozak, Bizilagunak, Ipuin kontaktak, Auzoko programa, etab. Bisuala dena gehiago iristen da herritarrengana.
 - Atzerritarren edo horiei begira lan egiten duten **elkarteen sustapena eta indartzea**, parte hartzeko bidea ematen dutelako eta orain artean lan bikaina burutu dutelako. Aipatzen denez, odea, babes gutxi ematen zaie.
 - Herritarrei **informazioa igortzeak** ere garrantzi berezia izango luke, bi ildotatik: alde batetik beharrezkoa da atzerritarrei Arrasaten gauzak nola funtzionatzen duten patxadaz azaltzea: eskolek, Lanbidek, Osakidetzak, etab. Bestalde, Arrasateko herritarrei immigrazioaren inguruko informazioa igortzea ere beharrezko ikusten da, euren errealitateak hobeto ezagutzeak epaiketatik enpatiarako zubia eraikitzen lagundu bait dezake.

- Bertako eta atzerritarren arteko **banaketa sozio-ekonomikoa** agerian geratzen da. Zentzu horretan nahastearen errealitatea non dagoen ezbaian jartzen da, hau da, zein puntutaraino nahasi litezke bertako eta etorkinak, guztiek maila ekonomiko berbera ez badute eta beraz espazio/baliabide/errealitate/egoera berberetara sarbidea ez badute.
- **Hezkuntzari dagokionean desoreka** azpimarratzen da Arrasateko bi **ikastetxeen artean**: Arizmendi ikastola eta Erguin herri eskola. Lehendabizikoa handiagoa izanik ere ikasle atzerritar gutxiagoren hartzaile da, bigarreanean portzentaia askoz esanguratsuagoa den bitartean. Neurri handi batean banaketa hori atzerritarren gaitasun ekonomiko txikiagoak eragingo luke —aurreko puntuan aipaturiko banaketa sozio-ekonomikoari jarraikiz—, eta ildo horretatik haur atzerritar eta bertakoak banatuta geratzeko arriskua nabarmentzen da.
- **Etxebizitza egoera oso zaila** marrazten da elkarrizketatuen aldetik. Arrasate unibertsitadedun herria izanik etxebizitzaren jabeek soilik horiei alokatu nahi dizkiete etxeak, ordainketa seguruagoa sentitzen dutelako. Horrek ezinezkoa bilakatzen du atzerritarrek bizitoki bat aurkitzea, muturreko kasuetan kale egoerak bizitzera iritsi behar izan dutelarik —ez lirateke ohikoenak Arrasateko herrian—, edo herritik joan beharrean aurkitu izan direlarik. Bestalde, **Txaeta auzoko pilaketaz** hitz egiten da, atzerritarren gehiengoa auzo horretan kokatzeak banaketa eragiten du eta, bertakoen eta atzerritarren arteko harremanak garatzeko oztopo bilakatzen da.
- Enplegua eta gizarte prestazioei dagokionez bi errealitate desberdin irudikatzen dira Arrasateko herrian, jatorriei erabat lotuta. Herrian jatorri nagusia **Latinoamerikarrena** da —emakumeak gehien bat— eta hauek gaztelerarekin datozenez **erraz bilatzen dute zaintza eta garbiketa esparruetan lana**. Beste muturrean izango genituzke **pakistandar, magrebtar zein afrikarrak, askoz ere zailtasun gehiago aurkezten dutelarik** laneratzeko orduan. Horrek hainbatetan gizarte prestazioak erabiltzera daramatza, herritarrek oro har gustuko ez duten errealitatea. Dena den, kontuan izan behar da askotan jarrera aktiboa erakutsita ere bertako enpresaria dela ezezkoa ematen duena.
- Osasunaren esparruari dagokionean arazo nagusia **errolarik ez izateagatik osasun sistemara sarbiderik ez** izatea litzatekeela aipatzen da. **Esparru honi lotutako aspektuak lantzea** garrantzitsu ikusten da: hilerokoaren gaia emakumeekin, elikaduraren gaia, kirola, azalaren zainketa, etab.
- Hizkuntzari dagokionean **kezka nagusia gazteleraren nagusitasuna da, euskararen aurrean**. Arrasatetarrentzako duen garrantziaz gehiegi ohartu gabe, atzerritarrei gaztelera hedapen gehiagoko hizkuntza suertatzen zaie eta gainera Arrasaten bizirik ere tramite juridiko-administratiboak egiteko eskatzen zaie hizkuntza da. Horrek askotan hizkuntza hori lehenestera daramatza, **bertakoengan ondoeza** eragiten duen hautua izanik.

- Atzerritarren egoera oro har zaila bada, **emakumeena are zailagoa** bihurtzen da. Printzipioz **Hego Amerikatik etorritakoen** egoera hobea dela dirudi, hizkuntzarkin datoz—gaztelera- eta enplegua aisa aurkitzen dute zaintza esparruan. Dena den, **lan baldintzak askotan oso txarrak** dira: egoera irregularrean daude, errolda gabe, interna moduan lan egiten, edozein unetan amaitu ahal zaie enplegua —zaintzen dabiltzan pertsona hiltzean, adibidez—. Are okerrago agertzen da **emakume magrebtarren** egoera. **Hizkuntza ez dakite, enplegu bat eskuratzeko arazoak** dituzte, jazkera oztopo bilakatzen zaie...
- **Immigrazio mahaiaren berraktibazioa** funtsezko ikusten da aldi behin eragile desberdinak elkartu eta immigrazioari dagozkion kontuak hitz egin eta adosteko.



7

Eranskinak

Diagnostikoaren atal kualitatiborako burututako elkarrizketak

ELKARRIZKETATUAREN PROFILA¹

- Udala, Aniztasun Teknikaria
- SOS Arrazakeria, abokatua
- Gurutze Gorria, gizarte langilea
- Caritas, apaiza
- Ekin Emakumeak, emakumeen jabekuntzan euskaraz eragiteko asmoa duen elkarteko kidea
- IMME, Euskadiko Emakume Migratzaileen Integrazioaren aldeko elkarteko kidea

Diagnostikoaren atal kualitatiborako burututako eztabaida taldea

PARTAIDEEN PROFILAK

1. Udala, Aniztasun Teknikaria
2. Udala, Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzia
3. Udala, gizarte langilea
4. Arizmendi ikastola, irakaslea eta Lanbide Heziketako zuzendaria
5. Erguin herri eskola, ikasketa burua
6. Lanbide, orientatzailea

¹Oharra: Elkarrizketatuen anonimotasuna mantentzeko asmoz, txostenean zehar E-1, E-2, E-3, E-4, E-5 eta E-6 kodeak erabili dira, bakoitzak nori dagokion zehaztu gabe.

7. Lanbide, langilea
8. Gurutze Gorria, gizarte langilea
9. Caritas, apaiza
10. Ekin Emakumeak, emakumeen jabekuntzan euskaraz eragiteko asmoa duen elkarteko kidea
11. IMME, Euskadiko Emakume Migratzaileen Integrazioaren aldeko elkarteko kidea
12. Asociación Activos por un Mundo Solidario-ko kidea



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**ikus
pegi** Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración